



Herri baratze jasangarrien sarea zabaltzen doa



- **Gabiltza** Emakume aditu eta arituen datu-basea osatzen ari dira kazetariarentzat
- **Karlos Cid Abasolo**, Madrilgo euskara irakaslea «Ahozko hizkeran dena onartu behar dela uste dut»
- **Jon Etxabe** ETAn emandako urteez, Zamorako kartzelaldiaz
- **Zigor Etxeburua** «Anormala da administrazioan euskaraz funtzionatzea eta puskatu egin behar da hori»
- **Liburu gomendioak** 15 proposamen udan gozatzeko

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
KUTXA EKO GUNEA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko abuztuaren 3a, 2.426. zenbakia

ASTEKO GAIA

GIPUZKOAKO BARATZE PARKE SAREA Ohiturak
ongarritzen. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

KARLOS CID ABASOLO: «Nahiago nuke exotismo gutxiago eta egoera linguistiko orekatuagoa izatea». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Iraganeko aztarnen bila
Murugainen. MARTIN VICIOSO / 9

GABILTZA DATU-BASEA Emakumeak hedabideetan hitza
hartzeko giltza. EIDER MADINA BERSATEGI / 16

ABORTATZEKO ESKUBIDEA 30.000 lagun bildu zituen
mobilizazioaren dokumentala. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 19

IRITZIAREN LEIHOA

KAPITALISMOA GAINBEHERA OTE?

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 20

ZUBEROA KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 22

DENA EGITEKO RAMON ETXEZARRETA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Urak handi dire. ITXARO BORDA / 22

BERTSO BERRIAK Gero arte Palestina! RUBEN SANCHEZ / 23

ERDIKO KAIERA

AISIA Udako gomendioak. ARGIAKO ERREDAKZIOA / 24

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

TERMOMETROA

ZIGOR ETXEBURUA: «Herritarren subkontzientean dago
administrazioak ez duela euskaraz funtzionatzen».

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 36

ENERGIA BURUJABETZA Baliabide naturalak ustiatzeko
egitasmoa Otxandion. MARTIN VICIOSO / 40

JON ETXABE: «Gazte ausartak baino ez ginen izan, egoera
sozial baten espoleta». MIKEL ASURMENDI / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Mexiko-Tenochtitlan: Zero Zabor hiriburua
españolak heldu arte. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datozen asteetan ez da ARGIA kaleratuko, udako oporraldia
dela eta. Irailaren 7an itzuliko gara.

Ohiturak ongarritzen

Gipuzkoako Baratze Parke Sarea abian jarri zenetik 600 bat baratzezain berri daude, adin guztietakoak, kalekumeak gehienak. Hiri baratze horiei bisita egin diegu eta baratzezain berriak tomatearen erdoilarengatik kezkatuta topatu ditugu uda hasiera umel eta goibel honetan.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

GIZA ESPEZIE BEREZIA ari da hedatzen gurean: baratzezain urbanoa. Espeziea ez da berria, eta aldaera autoktonoa ere ez da munduan bakarra, ezta gutxiagorik ere. FAOren (Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea) arabera, mundu osoko hirietako 800 milioi biztanle inguruk parte hartzen dute hiri-nekazaritzan. Asko beharrak jota jarduten dira, elikagai urritasu-

nak bultzatuta. Beste batzuek ingurumenak edo elikadura ohitura txarrak kezkatuta. Azkenaldian inguruko herri askotan sortu dira herri baratzeak autokontsumoa eta ekoizpen ekologikoa bultzatzeko: Gasteizen, Arrasaten, Etxalarren... Baina Gipuzkoako zortzi udalerritan ekimenak batzea erabaki eta Baratze Parke Sarea sortu dute. Lezo, Usurbil, Alegia, Hernani, Zegama,



Kutxa Ekogunean dago Donostiako baratze parkea. Lehen planoan tomateak erdoilak hartu dituela ikus daiteke.



Ezkerrean, Zuriñe Sanchez Ekoguneko komunikazio arduraduna baratzezain baterano batekin hizketan. Azpian, Baratzea ongarriztatuz ikastaroko parte-hartzaileak Ekoguneko baratze eskolan. Eskuinean, hegaztientzako habiak. Ekogunean hegaztientzako eta intsektuentzako babesguneak ipini dituzte, biodibertsitatearen eta orekaren mesedetan.



Tolosa, Errenteria eta Donostian orotara 600 baratze inguru jarri dituzte abian.

Donostiako baratze parkea Kutxa Ekogunean dago eta sareko egoitza nagusia ere bada. Bertan, Zuriñe Sanchez Ekoguneko komunikazio arduradunak hartu gaitu sarea- ren nondik norakoak azaltzeko.

Sarearen abantailak

Baratze sorta berriak sareak berak eta tokian tokiko udalak kudeatzen dituzte eta, gero, parke bakoitzean baratzezainek elkarte bat sortzen dute hainbat lan errazteko, hala nola, ongarririk eskuratzeko. Irizpide bateratu batzuk finkatu dituzte. Lursailen neurriak, esaterako, bertsuak dira udalerrri gehienetan: 30 metro koadrokoak dira sail gehienak, baina 60 eta 90 metrokoak ere badaude elkar- te eta taldeentzat. Monokultiboa galarazita dago; finean, baratzeen helburua ez da nego- zioa egitea, autokontsumoa baizik. Metodo jasagarriak bultzatzen dituzte, uraren kudea- ketan edo konpostatzean, esaterako. Baina nolabaiteko malgutasuna ere badago eta udal

bakoitzak bere baldintzak ezarri ditu. Bara- tzeak ez dira zozketa hutsez banatzen, irizpi- de jakin batzuk ezartzen dira batzuek besteek baino aukera gehiago izan ditzaten. Eta hori udalen esku dago. Batzuek, esaterako, langa- betuei ematen diete lehentasuna, beste batzuek herriko elkartei, baina oro har denek bilatzen dute adin guztietako baratze-



Eskoletako baratzeak: barazkiak hazi eta haurrak hezi

GERO ETA GIZARTE HIRITARRAGO honetan, eskoletako baratzeek haurren eta naturaren arteko zubi lana egin dezakete. Ikastetxe batzuetan nekazaritza ekologikoa sustatzen ahalegintzen dira. Beste batzuetan elikadura ohituretan eragin nahi dute baratzeen bidez. Helburuak helburu, argi dago baratzeak hezkuntza multidisziplinariorako gune egokiak direla, oso praktikoak eta haurrentzat erakargarriak, egindako ahaleginen emaitzak hazten ikusteko aukera baitute.

Gasteizko Ibaiondo ikastetxean 2007-2008 ikasturtean hasi ziren baratze ekologiko eredugarria sortzeko egitasmoa martxan jartzen. Anoetako (Gipuzkoa) ikastolako ikasleak, aldiz, hogeitertetik gora daramate baratze jardunean. Eta baratze propiorik oraindik ez duten ikastetxeek kanpoko baratzeetan egin ditzakete jarduera horiek; esaterako, Kutxa Ekogunekobaratze eskolara bisitaldiak egiteko aukera dute.

Helen Groome EHNEko aholkulariaren esanetan, “eskoletako baratzeek oso aukera zabala eskaintzen dute. Orduan, zergatik ez dute eskola guztiek baratzea jartzeko asmoa eta aukera? Edo baratzea izanda ere, zergatik ez dira bertara bideratzen merezi dituen

baliabide guztiak?”. Krisialdiak eta berekin dakartzan murrizketak izan daitezke erantzuna. Baina hori epe laburrean jokatzeko da, epe luzeagoan baratzeak ohitura jasangarri, osasungarri eta ekologikoak bultzatzeko eta, beraz, krisialdiei aurre egiteko tresnak eskuratzeko guneak baitira.

Erresuma Batuko Royal Horticultural Society elkartearen ikerketa batek aspaldiko teoria egiaztatu du. Inkesta bat egin zitzaion hiri-eskoletako baratze ekimenetan ari diren 1.300 irakasleri eta, ondorioen arabera, irakasleek aho batez adierazi zuten onuragarria dela ikastetxean baratzea izatea. Txostenaren arabera, baratzean egiten diren jarduerak zenbait gaitasun garatzen laguntzen dute, eguneroko bizitzako erronkei aurre egiteko. Gainera, ulermen, matematika eta zientzia-ezagutzak hobetzen dituzte, baita gizarte harremanak, portaera eta erantzukizunaren zentzua ere. Horrez gain, ikasle askok etxean erabiltzen dituzte eskuratutako ezaguerak eta jarduera sedentarioak alde batera uzteko joera handiagoa dute.

Zentzu horretan, baratze komunitarioak eta eskolako baratzeak elkarren osagarri dira. Ondorengo belaunaldiek baratzean aritzeko grina piztu eta horrek dakartzan ohitura osasungarri eta ekologikoei jarraipena dute. Eta gurasoak nahiz ingurukoak baratzean dabiltzala ikusteak ere koherentzia ematen die haurrek baratzean ikasten dutenari.



zain taldea osatzea. Baratzeen eskaera txikiagoa da gazteen artean, eta esleitzearen baldintzetan gazteei lehentasuna ematen zaie horregatik.

Zuriñe Sanchezek sarearen parte izatearen abantailak azaldu dizkigu: Ekogunearen webgunean foro bat dute baratzezainek beren kezak eta zalantzak argitzeko. Aholkuak ere eskaintzen ditu web orriak, hilero-

Antsoaingo Ezkaba ikastetxe publikoko haurrak baratzean.

ko ikuskaritza ere egiten da Ekogunetik, dinamizazio jarduerak antolatzen dira eta, batez ere, formakuntza eskaintzen da. Baratze parkearen ondoan baratze eskola dago. Bertan, sareko baratzezain berriek 6-8 orduko oinarritzko ikastaroa egin behar dute ortuan murgildu baino lehen. Eta gehiago sakondu nahi dutenek ikastaro gehiago dituzte. Gaur, esaterako, *Baratzea Ongarritutuz: baratzezaintzan sakontzen hasteko bidea* bost orduko ikastaroa emango dute Kimu Bat taldeko Iker Goikoetxeak eta Aitziber Otegik. Zuriñe Sanchezek ere ikastaroan parte hartuko du, Ekogunean lan egiteaz gain, baratzezain berrien espezieko kidea ere baita; lankideekin batera 60 metroko baratzea egokitu zaio. Baratzezainen batez besteko profilaz galdetuta “30 eta 50 urte arteko kalekumeak” erantzun du, baina erantzunak ez du erabat bete. “Egia esan, denetik dago”. Eta ikastaroko parte-hartzaileak hurbildu direnean argi geratu da: haien artean 30 urtez beherakoak badira, eta erretiroa dagoeneko hartua izango duten bizpahiru ere bai. “Lursail hauek baratzea

baino gehiago dira, kontsumo ohiturak aldatzen laguntzen dute eta topagune ere badira, belaunaldien arteko topagune”.

Ikastaroa hasi denean, belaunaldien arteko aldea nabarmen geratu da. Zaharrenen belaunaldiak lotura handiagoa izan du nekazaritzarekin eta beren iritziak eta zalantzak errazago azaltzen dituzte ikastaroan, gazteek adi-adi entzuten duten bitartean. Irakasleak azaldu duenean ez dela komeni simaur freskoa estaltzea edo sustraiak zuzenean ukitzea, ikasle beteranoetako batek esan du berak entzuna duela porruak zuzenean simaur gainean landatu daitezkeela. Ondoren, zaharrenetako bi eztabaidan hasi dira intsektuak medio: batek dio lehen ez zegoe-la hainbeste zorririk, besteak zorria beti egon dela. Irakasleak azaldu du ziurrenik zorria ugariagoa dela orain, natura desorekatuagoa dagoelako.

Izan ere, biodibertsitatearen eta orekaren garrantzia azpimarratu dute: “Izurriekin ez dugu obsesionatu behar. Intsektuak ez ditugu ezabatuko, kontrolatu baizik”. Eta baratze eskolan bertan horren eredu praktikoa dago: hegaztientzat eta intsektuentzat babesguneak ipini dituzte. Zomorroi perretxiku formako “hotela” egin diete eta, atzean, txorientzako habiak paratu dituzte. Eta horiek kontrolpean

izateko bide jasangarriak badaude: “Azenarioa eta tipulina ilaratan txandakatuz, eulia uxatzea lortzen da”, adibidez.

Baina Kimu Bateko kideek garbi azaldu dute erremedio eta aholku hutsezinik ez dagoela, proba-hutsegite metodoa erabili behar dela. Eta orduan azkenaldian baratze-zainen hizketagai nagusi bilakatu dena azaleratu da: tomatearen erdoila. Eguraldi kaxkar honekin ezin asmatu dabilta: batzuek kobrea zazpi aldiz bota arren ez dute erdoila geldiaraztea lortu eta besteek, behin edo bitan botata, tomateak itxuroso dituzte.

Norberak hazitakoa baino hoberik ez dago

Uda motel eta busti hasi da aurten, larunbat goiza bezalaxe. Hernaniko Sagastialdeko baratze eremuan Ixiar Lujanbio eta Ane Erize beste inor ez dago. Biek 28 urte dituzte eta 30 metroko baratze bana tokatu zitzaion duela urtebete inguru. *Hernaniko Kronikan* irakurrita izan zuten ekimenaren berri, baina ez omen zen bat-bateko kontua izan. “Aurrez behar da nolabaiteko kontzientzia eta gogoa”, dio lehenago ere baratzea jartzeko lursail txiki baten bila ibili zen Ixiar Lujanbiok, babarrunetan eta piperminetan hazitako belar gaiztoak kentzen dituen bitartean.



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

VII. HAUSNARTU

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

LANAK AURKEZTEKO EPEA

ZABALIK DA

2014ko IRAILAREN 30a BITARTEAN

Sarien helburua euskal soziolinguistika teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Era berean, euskararen inguruko soziolinguistika-arloko hausnarketa-lanak ere onartuko dira.

EDUKIAK

Euskal Soziolinguistikako lan teorikoak, teorien aplikazioak, ikerketa aplikatukoak edota saiakera-arlokoak izango dira.

Soziolinguistikaren arloari lotutakoak edo beste zientzia-arlo batzuetatik euskarara egokitutakoak (antropologiatik, historiatic, informatikatik, fisikatik e.a.).

Lanak aurretik argitaratu gabeak izango dira. Interneten argitaratutako lanak ez dira bere horretan onartuko, argitaratutaz hartuko baitira.

SARIAK

Lehenengo saria: 1.500 € eta Jose Luis Zumetaren litografia
Bigarrena saria: 1.000 €
Hirugarrena saria: 700 €

NORA BIDALI

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA > 943 592 556
kluster@soziolinguistika.org • hausnartuoziolinguistika.org
www.soziolinguistika.org/hausnartu

BARATZE PARKEAK



Ezkerrean, Mikel Aizpurua eta Kontxi Urkola; eskuinean, Ixiar Lujanbio eta Ane Erize. Urkola baserrian jaiotakoa da eta badu esperientzia baratzean, baina gainerakoak berriki murgildu dira baratzezaintzan.

Ekoguneko oinarritzko ikastaroa oso baliagarria izan zitzaizela diote, baina arituz ikasten dela, baita esperientzia handiagoa duten baratzezainen laguntzaz ere. Lujanbiok aldameneko baratze ederra erakutsi digu, “horrek asko daki” esanez. Bospasei sail aurrerago, Ane Erizek ere baratzezain trebea du bizilagun. Erizek berak ere barazkiak ilaran txukun-txukun jarrita dauzka, baina erdian hutsunea du; zer landatu pentsatu behar du orain.

Porruak mehe samarrak ateratzen zaizkio- la esan dio Lujanbiori, eta honek beharbada lurra trinkoegi dagoelako gertatzen dela erantzun dio. Dena den, orain badakite supermerkatuetan barazki perfektuak edozein garaitan topatzea susmagarria dela. Garaiko produktuak bereizten ikasi dute eta baratzeak pazientzia eskatzen duela konturatu dira. Duela urtebete inguru barazkiak denda ekologikoan erosten hasi ginen “, dio Ixiar Lujanbiok. “Ez zen erabaki kontzientea izan, baina baratzean hastearekin batera izan zen. Ziur zerikusia baduela”.

Ane Erizek baratzeke lehen letxuga dastatu zueneko du gogoan. “Eta bai ona! Norberak hazitakoa baino hoberik ez dago”.

Erdoilak erdoil, espeziea ugaltzen ari da.

Igande goizean, azkenean, eguzkia ater da. Ekogunean esan ziguten baratze parkeak topagune ere bazirela, eta eguraldi ederra lagun, esandakoa egiaztatu dugu Antziolan, Hernaniko beste baratze eremuan. Hesiaren alde batean orotariko baratzezainak dabilta. Baratzezaintzaren teoriarik mordoa ere hurbildu da eremura, pasiera aitzakia: hau jasotzeko goizegi dela, koinatuak baratzea duela etagaitz honentzako erremediorik onena beste hau dela... Badaezpada hesiaz kanpotik begira, eskuak zikindu gabe.

Mikel Aizpuruak 62 urte ditu eta aurretiko erretiroa hartu zuenean egokitu zitzaion

baratzea, bigarren txandan, joan den urrian. Kalekumea da Aizpurua, baina Kontxi Urkola emaztea baserrian jaiotakoa du. Eta eskuak leka tartean sartu dituenean agerian geratu da hori: segundo gutxitan eskua bete leka jasoak ditu dagoeneko. Baratzean nork agintzen duen galdetuta, “baratzea senarra-rena da, bera aritzen da eta nik tarteka laguntzen diot” dio Urkolak. Baina eskarmentua bada zer baita eta “azaleko patata hauek berehala jaso behar dira” esan dio hurrena senarrari, “eguzkiak jota berdetu egiten baitira”. Senarra tomatekin kezkatuta dago, ordea. Aldameneko baratzeke tomateak erdoilak erabat janda daude eta Aizpuruak zorte ona izan duela esan deza-kegu, erdoilaren kontrako erremedioa gaur baino lehen behin bota diela kontuan hartuta. Erdoilak hartutako hostoak kentzen ari dela, baratzezain zaharrago bat hurbildu zaio eta, nola ez, tomatea gora eta erdoila beheara hasi dira hizketan. Baratzezain betaranoa baikorragoa da, eguraldi ederrak lagunduta edo: “Erdoila ez da hainbestera-ko, nik ere badut erdoila eta hemen nabil”.

Senar-emazteek alaba gazteena eraman dute gaur lursailera, ikas dezan, oporretan kanpora doazenean hark arduratu behar baitu baratzeaz. Sail batzuk aurrerago ere aita-semeak ikusi ditugu lanean; semearentzat lehen aldia dela esan digute. Bezperan, Lujanbiok eta Erizek ere aipatu ziguten mutil-lagunak ere aritzen direla ortuan. Baratzezain berriak 600 baino gehiago dira dagoeneko. Gainera urtea amaitu baino lehen Azpeitiako baratze parkea ere jarriko dute habian eta Ekogunekoak hainbat udalekin, hala nola Irungoarekin, harremanetan daude sarea zabaltzeko. Horrenbestez, hiriko baratzezainen espeziea ugaltzen ari da eta, horrekin batera, ohitura osasungarri eta jasagarriago-ak ere bai. ■



Iraganeko aztarnen bila Murugainen

Historia aberatsa du Murugain mendiak. Burdin Aroan herrixka izan zen bertan, eta 1936ko Gerran, frankistei bidea galarazteko lubakia. Aztarnak berreskuratzeko auzolana egin dute ingurukoek azken hiru udaratan. Lekua egokitzeaz gain, jendartean zabaltzea dute helburu.

| MARTIN VICIOSO |

ARABA ETA GIPUZKOAREN arteko mugan dago Murugaineko gaina, soinean Arrasate, Aretxabaleta eta Aramaio dituela. Ondare historiko aberatsako mendia da eta Burdin Aroko herrixka baten eta 1936ko Gerra garaiko lubaki baten aztarnak aurki daitezke. Tamalez, ez ziren behar bezala mantendu eta denboraren poderioz, lurrak estali zituen. 2011ko udan, horiek berreskuratzeko auzolanari ekin zioten herritarrek, Aramaio



Udalak, Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak eta Ondare Babesa elkarteak bultzatuta. Ordutik, urtero antolatu dituzte arkeologia saioak eta ondoren bisita gidatuak egin dituzte. Aurtengo uztailean, lehen aldiz, Aretxabaletako eta Arrasateko lurrak induskatu dituzte.

1936ko Gerran Debagoienako hainbat menditan eratu zituzten lubakiak, Arabatik Bizkairako bidean ziren frankistak oztopatzeko. Azken urteotan egindako indusketari esker, jakin da Burdin Aroko harresia baliatu zutela trintxera hornitzeko. Halaber, gerra garaiko bizimoduari buruz informazioa lortu dute, ateratako hondakinei esker. Hala nola, janari latak, bala-zorroak eta bestelako gailu belikoak berreskuratu dituzte.

Aranzadi elkarteko arkeologoen 1988an hauteman zuten Burdin Aroko herrixka Murugainen, orduko tresnak aurkituta. 2005ean berriz, telefono antena eraikitzekeo lurren aztertzean ari zirela, harresia egon zela konturatu ziren. Berreskuratzea, ordea, ez da edonolako lana izaten ari. Eredu zabala har-

Harresiak gordetzen zuen Burdin Aroko herrixka aurkitzea da hurrengo erronketako bat, zer nolako bizimodua zuten aztertu ahal izateko.

tzen du, eta narriatuta dago. Hala ere, handik gertu zeramika aleak eta esku-errotak aurkitu dituzte, garaiko beste objektu batzuen artean. Harresiak gordetzen zuen herrixka aurkitzea da hurrengo erronketako bat, aztertu ahal izateko zer nolako bizimodua zuten eta zein etxebizitzetan hartzen zuten atseden. Dena den, ikusteko dago aurrerantzean horretarako dirulaguntzak lortuko dituzten. Hortaz, ez dakigu proiektuan zenbateraino sakondu ahal izango duten.

Dibulgazioaren garrantzia

Batik bat egokitzapen lanak egin dituzte orain arte. Hala ere, ondare historikoa herritarren artean zabaltzea da asmo nagusia. Urtero, auzolan saioak amaitu ostean, hitzaldiak eta bisita gidatuak egin dituzte aurkitutakoa aurkezteko. Dokumentazio lanetan Intxorta 1937 kultur elkartearen laguntza dute. “Bertan ibilitakoei ahotsa ematearen garrantzia” azpimarratu du Aramaio Udalak.

Ondarea Berreskuratzeko Taldeak beste ekimen batzuk ere eraman ditu aurrera auzolanean, Murugaineko baino “xumeagoak”. Bide, eskailera eta iturri zaharrak egokitu dituzte, besteak beste. Aurrera begira halako proiektuekin jarraitzeko asmoa dute, nahiz eta uztaileko Murugaineko lanei berriro ekin. Denon artean aurrekoek utzitakoa berreskuratu eta zabaltzea baino ondare aberatsagorik ez baita. ■



KARLOS CID ABASOLO

«Nahiago nuke exotismo gutxiago eta egoera linguistiko orekatuagoa izatea»

Batzuetan ematen du gauza batzuk argiago ikusten direla kanpotik, bertatik baino. Karlos Cid madrildarrarekin euskarari buruz solasean, halako sentsazioa hartzen da.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Gurasoak Madrilgoak, baina amaren aita Sestaokoa. Hortik euskal zaletasuna?

Bai, txikitatik harremana izan dut Euskal Herriarekin. Hizkuntzarekiko harremana, aldiz, beranduago etorriko zen, garai hartan oso jende gutxi hitz egiten zuelako euskaraz Sestaon. 15 bat urte nituela, uda batez, bizkaiera liburu bat erosi eta oporretan ikasten hasi nintzen. Madriler aitzuldean galdetu eta esan zidaten Euskal Etxean ematen zituztela eskolak. Hasieran bizkaiera nahi nuen ikasi, baina une horretan ez zegoen euskalkietako irakaslea, soilik batuerakoa, eta batua ikasteko konbentzitu ninduen. Gero, aitortzen dut, nire kabuz ikasi nuen eta nolabaiteko zor hori kitatu nuen.

Atzerriko unibertsitateetan euskara irakatsi nahi dutenentzat Etxepare Institutuak antolatutako ikastaro batean hartu duzu parte orain egun gutxi. Zertaz mintzatu zara?

Oso mintegi praktikoa izan da. Nire asmoa zen entzuleei azaltzea nire ustez nola irakatsi behar den euskara eta haren inguruko guztia eta, batez ere, nola ez den irakatsi behar. Aholku batzuk eman dizkiet urteotako nire esperientzian oinarrituta.

Zer da egin behar dena eta zer ez?


Egin behar ez dena da euskarari buruzko iritzi okerrak sustraitzea. Horietako batzuk oso zabaldua daude baita euskaldunen artean ere, adibidez euskara oso zaila dela edo euskal aditza oso kontu berezia dela. Mito hutsak dira. Era berean, euskararen jatorriaren eta haren ahaidetasunaren inguruan dauden iritzi

oinarri gabeak baztertu behar dira. Edozein modutan, lehenengo ideia da argi edukitzea ez dela gauza bera unibertsitateko klase bat eta Hizkuntza Eskolako edo euskal etxe bateko saioa. Azken horietan hizkuntzaren alderdi praktikoa gehiago landu behar da nola mintzatzeko den ikasteko, baina unibertsitatean beste irakaspen batzuk eskaini behar dira, hizkuntzaren historia eta hizkuntzak barrutik nola funtzionatzeko duen jakinaraziz. Arriskua da hau dena nahastea eta, ondorioz, askotan unibertsitatean egiten da Hizkuntza Eskolan egiten dena. Euskara praktikoari garrantzia eman behar zaio, baina bere neurrian, ez dezala hartu denboraren herena baino gehiago, adibidez. Gainera, orain edozein hizkuntza ikas dezakezu Internet bidez,

NORTASUN AGIRIA

Karlos Cid Abasolo (Madril, 1963ko abuztuaren 20an). Hizkuntzalari, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko irakaslea. 15 urterekin euskara ikasteari ekin zion bere kabuz. Duela hogeita bost urte hasi zen euskara irakasten Madrilgo Euskal Etxean eta Hizkuntza Eskolan. 2007tik Euskal Filologiako irakaslea da unibertsitate horretan. Bertan egiten den EuskalComplu kultur egitarauaren koordinatzailea da eta hamaika sustapen ekimenetan parte hartzen du, Madrilan egiten den Korrika Txulapoan, esate baterako. Hizkuntza eslaviarretan espezialista izanik, hainbat literatura lan itzuli ditu txekieratik euskarara. Etxepare Institutuko ohiko kolaboratzailea da eta Euskadi Irratiko tertuliakide Xabier Amurizarekin batera, azken bost urteotan.





edozein tokitan bizi bazara ere. Oso baliabide onak daude denon eskura.

Euskaltzalea eta hizkuntza eslaviarren zalea ere bai.

Tesia Txekoslovakian egin nuen. Gaia zen euskara, hizkuntza erromanikoak eta eslaviarren arteko konparaketa perpaus erlatiboetarako dagokienean. Gai bitxia eta inor gutxiri interesatzen zaiona, baina hor altxorra ikusi nuen nik. Hor zaletu nintzen txekierarekin. Han eman nituen bi urteetan itzulpen lanak egiten hasi nintzen txekiar literatura euskal irakurleengana hurbiltzeko: Kundera, Hašek, Škvorecký... Horrek sekulako poza eman zidan.

Erkaketa horretatik zer ondorio atera zenituen?

Labur esanik, egiaztatu nuen hipotesia hau da: euskal erlatiboak eta hizkuntza erromanikoen eta hizkuntza eslaviarren perpaus erlatiboak oso ezberdinak dira, baina ahozko hizkuntza erromaniko eta eslaviarretako hiztunak hurbiltzen ari dira euskararen eredura. Euskaraz “n” bat besterik ez da behar erlatiboak egiteko. Eredua ekonomikoena da, eta antzeko zerbait egitera hurbiltzen ari dira egun hiztun asko, hizkuntzaren ekonomiagatik. Adibide bat jarzteagatik: gero eta jende gehiagok esaten du “*ése es el hombre que vive con él*”, “*ése es el hombre con el que vive*” esan beharrean.

Japonieraz

“Japonieraz, euskaraz bezala, erlatiboak izenaren ezkerrean doa, baina han ez dira sentitzen erlatiboetarako perpaus laburrak egitera behartuta, buruan ez dutelako beste hizkuntza boteretsuago bat bidea markatzen diena. Lasai ederrean 50 hitzeko erlatiboetarako perpaus egin dezakete. Hemen euskaldun batek halakorik egingo balu, jendeak Ertzaintzara deituko luke segituan”.

Baina hori soilik ahozko hizkeran, idatzizkoan gaizki dago, ez?

Zer dago gaizki eta zer ongi? Bakoitzak bere hitz egiteko modua dauka. Ahozko hizkeran dena onartu behar dela uste dut. Idatzizkoan horri erreparatu behar diogu, bai, baina ahozkoan dena ondo dago, komunikatzea baita helburu nagusia. Erabateko askatasuna izan behar dugu. Badakit unibertsitate mailan hori ez dagoela oso ondo ikusia eta lan-kide batzuek bereak eta bost esango lizkidaketela baina ez dit axola. Idatzizkoan batzuetan egiten duguna da hizkuntza zaildu, eta ahozkoan aldiz, ahal den neurrian erraztu. Euskarak hizkuntzalariei horren hainbat adibide ematen digu. Gauza askotan euskarari balio handia aitortzen diot, erraztasunari dagokionez.

Beste adibiderik?

Esate baterako, euskal aditza zaila dela diote nor-nori-nork duelako. Nik beti esaten dut hori berdina ikusten dudala hizkuntza indoeuroparretan: gaztelaniaz, ingelesez... “*Léve-moi*” adibidez, nor-nori-nork da, baina jendeak ez dio halako izen uxatzailek jartzen. Ematen du jendea beldurtzeko eta ikas ez dezan esaten den zerbait dela. Nire mezua kontrakoa da: euskara ez da ezer berezia eta beste hizkuntza guztiek bezala funtzionatzen du.



Zergatik iraun du euskarak gaur egun arte?

Nire ustez bi arrazoi nagusirengatik: oso esparru isolatueta babesleku oso sendoa izan duelako (baserrietan, itsas portuetan...) eta euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, beste hizkuntza batzuetatik hitzak hartzeko duen malgutasunarengatik. Hainbeste harreman izateak bizirik irauteko balio izan dio. Horren malgua izan ez balitz, desagertua egongo litzateke.

Gazteek gero eta gehiago hitz egiten dute euskañolez?

Batzuetan gazteak kriminalizatzen ditugu hizkuntza batetik bestera etengabe pasatzeagatik. Hori linguistikan kode alternantzia deitzen da eta niri oso ongi iruditzen zait. Eroso sentitzen badira horrela, aurrera. Asmatu dute halako hizkuntza kreola bat eta nik, hizkuntzalari bezala, ezin dut ezer esan horren aurka. Beste gauza bat da idatziz erabiltzea azterketa batean, adibidez. Hori ezin liteke inolaz ere onartu.

Itsaso, zure 8 urteko albarekin, euskaraz ari-zen zara beti?

Bai. Dena egiten diot euskaraz eta berak erdaraz erantzun.

Hemengo familia askotan bezala, beraz.

Elebitasun nekoso

"Hemen elebidun bizi nahi izatekotan egunero borroka egin behar duzu eta hori ikaragarri neketsua da jendearentzat. Hori gertatzen da, neurri batean, euskaldunen artean ere alproja asko daudelako. Euskara ez da maitatzen euskara maite duzula esanez. Hobe da hori ez esatea eta egunerokoan praktikara eramatea".

Bai. Beno, desberdina da. Hemen, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian, askotan ikusten dudun arazo psikiatrikoa da guraso euskaldunak haien artean erdaraz egiten dutela eta gero haurrak euskaraz hitz egitera behartzen dituztela. Seme-alabak koherenteak direnez, ez dute ulertzen zergatik egin behar duten gurasoek egiten ez dutena.

Mezu larriak eman behar dira jendea esnatu dadin?

Bai. Badakit pertsona batzuk, Kike Amonarriz kasu, saiatzen ari direla nireak baino askoz ere mezu baikorrak zabaltzen eta hori ere beharrezkoa da. Horren positiboak ez garenoi gure jarrerarekin ez dela ezer lortzen esaten digutenean arrazoi dute. Egia da, baina zoritxarrez ezkontasunerako zenbait arrazoi ere badira. Diagnostiko orekatua egin behar da. Familia barreneko datuak dira gehien kezkatzen nautenak: seme-alabak euskarazko ereduera bidali, familiako kide guztiak euskaldunak izan eta hala ere gurasoek gaztelaniaz hitz egiten dute haien artean. Halako egoera absurdoak badira. Ba... hor konpon, Marianton!

Beraz, behar da Amonarriz bat baina Karlos Cid bat ere bai?

Bai, hala da. Oso ongi dago berak esaten duena, baina nik ez nuke esango. Nire pertzepzioa da batzuentzat euskara balio sinbolikoz zamatuta dagoela eta nire ustez hizkuntzak edozein ikur baino askoz ere garrantzitsuagoak dira. Egoera oso kezka- garria egiten zait, baina EAEko herrialdeekin alderatuta gehiago gustatzen zait Nafarroan gertatzen ari dena. Nafarroa Oinez ekimenaren bidez ezagutu nituen esperientziak oso aberasgarriak eta pozgarriak izan ziren.

Komunikatzaile ona zara eta hori ederki erakusten duzu Euskadi Irratiko tertulietan.

Eskerrik asko! Primizia bat emango dizut: esan didate heldu den urtean bosgarren urtez jarraituko dugula Xabier Amurizak eta biok Manu Etxezorturekin tertulia horretan. Niretzat hori bizio bilakatu da. Hasieran lotsatu egiten nintzen eta orain konturatzen naiz Xabierri kasik ez diodala hitz egiten uzten.

Tertuliak, elkarrizketak... Gero eta ezagunagoa zara Euskal Herrian.

Bai, hori dena Nafarroa Oinezi esker. Duela lau urte munduan zehar euskara irakasten genbiltzan atzerritar batzuk bildu gintuzten Iruñean eta ekimen horri esker hedabideen munduan sartu nintzen pixkanaka.

Euskara ez da exotikoa

"Euskaldunek kosmobisio propioa dutela esatea polita da eta saltzen du, baina zertan datza? Hor daude hainbat teoria euskarari buruz, Oteizarena kasu. Niri oso ipuin polita iruditzen zait baina ipuin bat da, azken finean. Fikzio handi batean oinarritutako teoria, errespetu guztiarekin. Exotismoak saltzen du, Europako hizkuntza zaharrena hitz egiten duzula esatea oso ongi gelditzen da ligatzeko, adibidez. Baina prestigioa eta sendotasuna ez zaio hortik etorriko. Hainbeste informazio mugitzen den aro honetan jada ez da ia ezer exotikoa gelditzen. Sentitzen dut, baina euskara ez da exotikoa eta euskaldunak ez gara exotikoak. Nahiago nuke exotismo gutxiago eta egoera linguistiko orekatuagoa izatea".

Zer iritzi duzu Nafarroa Oinez bezalako ekimenen inguruan?

Euskararekin maiteminduta dauden atzeritarak ekartzea oso erabaki zuzena izan zen, euskaldunei nolabait erakusten zaielako zer nolako hizkuntza zoragarria daukaten eta badela kanpoko jendea euskara maite duena. Orain kritiko jarriko naiz: ikusten dut Euskal Herrian batzuentzat euskara jai batzuetarako aitzakia bihurtu dela. Esaten dute hizkuntza maite dutela, baina egunerokoan erdararen aldeko hautua egiten dute. Kanpotik begiratu hori ez dut ulertzen.

Hemen biziko banintz asko sufrutuko nukeela iruditzen zait. Izugarrizko amorrazioa harrapatuko nuke hemengo egoera erabat irregularra delako, elebitasunik ez dagoelako, erabateko diglosia dagoelako. Nik ez dut esaten euskara maite dudala, esaten dut euskaraz hitz eginez gozatzen dudala eta horrekin koherentea naizela, besterik ez. Jendea Korrikara doala, primeran, baina garrantzitsuena da Korrikan zer hizkuntzan hitz egiten duten, baita Korrika baino lehenagoko eta ondorengo egunetan ere.

Zure unibertsitateko ikasleak nongoak dira?

Espainiarrak gehienbat eta Erasmus-ekoak asko. Horiek dira, nire ustez, onenak. Ikustekoa da zer nolako prestakuntzarekin datozen.

Euskararen enbaxadorea ere bazara Madrilen, nolabait. Galdera asko egiten dizute?

Segun eta zein girotan. Giro irekietan harro esaten dut nire lanbidea zertan datzan. Giroa horren irekia ez denean, aldiz, kontu handiagoz ibiltzen naiz. Esate baterako, okela saltzen didan harakina fatxa hutsa da.

Argia beti piztuta

"Tamalez gogorria da, baina Euskal Herrian lau haizeetara zabalduko bagenu iragarki bat esanez euskaraz hitz egitea debekatuta dagoela, erabilera handituko litzateke. Hau esanda badakit batzuek madarikatuko nautela, baina argia beti piztuta eduki behar dugu, erlaxatu gabe".

Bospasei bandera espainiar erraldoi ditu harategian, okela ikusten ozta-ozta uzten dutenak. Behin galdetu zidan ea zertan ari nintzen lanean eta filologoa naizela erantzun nion. Kito. Nik badakit berak ez dakiela zer den hori, baina azalpen gehiago ez diot eman behar, oso okela ona ematen baitit beti.

Beste behin operatu egin behar ninduten eta ebakuntza-gelan sartzeaz geundela, anestesiar jarritakoan, zertan aritzen nintzen galdetu zidan medikuak. *"Enseño vasco"* esan nion. *"Eso no sirve para nada"* erantzun zidan zakarki eta nik, gaitasuna edo indarra ez dakit nondik ateraez azaldu nion: *"Pero me sirve de maravilla para pagar la hipoteca"*. Batzuetan errespetu falta ikaragarria sumatzen da, baita presioa ere. Ikasleek kontatzen zidatenean zer nolako gauzak entzun behar izaten zituzten, lehen batez ere, oso mingarria suertatzen zitzaidan. Batzuei etxean esaten zieten ez jarraitzeko horretan, burmuina garbitu behar zietela eta. Azken boladan hori ia desagertu egin da eta Madrilen herra gehiago sumatzen dut Kataluniarekiko Euskal Herriarekiko baino. Egia esan, Kataluniaren aurka hitz egitea Madrilen oso aspaldiko kontua da.

Txekieratik euskarara egindako itzulpen sorta ederra duzu.

Literatur itzulpen asko egin nituen, batez ere duela zortzi bat urtera arte. 1993an hasi nintzen Milan Kunderaren *Amodio barregarriak* lanarekin. Gero Jaroslav Hašek idazlearen *Xveik soldadu onaren menturak Mundu Gerran*, Josef Škvorecký-ren *Mundu mingotsa* eta Milan Kunderaren *Izatearen arintasun jasanezina* egin nituen. Euskaratik gaztelaniara Javi Cilleroren *Ciudad de locos* itzuli nuen eta azken hilabeteotan beste literatura-liburu bat itzultzen aritu naiz: Ricardo Pichel Gotérrezekin batera, Iban Zalduaren *Azken garaipena* (2012ko Euskadi Literatura sariaren irabazle haur eta gazte literaturaren sailean) galizierara itzuli dugu, eta irailean argitaratuko da. Itzultzaile moduan publizitatearen munduan ere sartu nintzen telebistarako iragarkiak itzuliz Madrilgo enpresa batean. Oso esperientzia interesgarria izan zen.

Kaikurena ez zen izanzen zurea? "Denak gara kaiku"... Gogoratzen?

Ez! Baina hori buruan izan nuen hau egiterakoan. Oso ardura handiko lana egiten ari nintzen eta ezin nuen akatsik egin. Kontuz ibiltzeko lana da eta oso ondo ordaindua, literatura baino askoz ere hobeto. ■




Klima-aldaketaren aurrean, **NEURRIAK HARTU DITUGU**

**CO₂-AREN
IGORPENAK
MURRIZTU DITUGU**



**KLIMA-
ALDAKETARA
EGOKITU GARA**



Klima-aldaketaren eraginak arintzea da EAEko estrategiaren helburua, eta berotegi-efektuko gasak murrizteko neurrietan inbertitu dugu.

Gainera, urratsak eman ditugu, naturaren eta gizakiaren sistemak ingurumenaren aldaketetara egokitzeko, hau da, kalte potentzialak gutxitzeko, aukerak aprobetxatzeko, etab.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PERTSONA HELBURU

Emakumeek hedabideetan hitza hartzeko giltza

Genero ikuspegitik hedabideetan ematen den desorekari erantzuteko lanean buru-belarri ari dira Eider Olazar Elduaie eta Oihana Etxebarrieta Legrand kazetariak. *Emakumeok kazetarion agendan: euskal emakume adituen biltoki digitala* proiektuarekin, Berria Fundazioaren beka jaso zuten urtarrilean eta 2015erako martxan izanen da Gabilitza datu-basea.

| EIDER MADINA BERASATEGI |

HEDABIDEETAN emakumeen presentzia areagotu eta gogoetarako bidea zabaltzeko asmoz ekin zioten egitasmoari. “Bi helburu bete nahi ditugu. Batetik, kazetarienezako tresna erabilgarria sortu, eta bestetik, kontzientiazio lana egin. Orain arte hedabideetan lekurik izan ez duten ahotsei fokua ipintzea da asmoa”, azaldu du Olazarrek.

Eredu maskulinoa lehen lerroan

Komunikabideetan gizonak eta emakumeak hartzen duten lekua ez da parekidea. Lehenak aditu bezala agertzen dira eta “seriotzat” ditugun gaiez mintzo dira. Emakumeak aldiz, bigarren planoan ageri ohi dira eta “garrantzi gutxiagoko” gaiak lantzen dituzte, “bigunagotzat” hartzen direnak, aisia edo kultura kasu. “Jendartearen iruditegian eragina du horrek, publikoak errealtatearen argazki desitxuratua jasotzen duelako. Badirudi emakumeek ez dakitela ekonomiaz edo zuzenbidez”, kexu da Etxebarrieta.

“Iritzi-emaileen figura ere maskulinoa da, oro har. Irrati eta telebistetako tertulietan nork bere iritzia emateko modu bortitzean hartzen dute parte hizlariak. Emakume asko ez da tesuinguru horretan eroso sentitzen eta parte hartzeari uko egiten dio, nahiz eta jorratuko den gaiaren inguruan asko jakin”, adierazi du Olazarrek. “Beste asko berriz, ez daude ahaldunduta eta ez dute euren burua aditu gisa ikusten”, gehitu du Info7 irratiko esatariak.

Adituak eta arituak

Egungo adituaren figura zalantzan jarri eta eraldatu nahi dute proiektuaren egileek.

Haien esanetan, “klase ertain edo altuko gizon zuriena da hitza hedabideetan, ikasketadunak gehienak. Medioek eta jendarteak horiek kontsideratzen ditu aditu”. Molde hori irauli nahian, edozein esparrutan esateko edo erakusteko zerbait duten emakumeak ikusaraztea da agendaren xedea.

Ikasketa akademikoei lotutako tituludunak gain, norbere bizipenek emandako jakinduriaren jabe direnak ere aditu direla uste dute Olazarrek eta Etxebarrietak. Ildo horretan, *aritu* eta *aditu* horien esperientziak belaunaldi berriei

transmititzeko beharraz mintzatu zaizkigu. “Etxekoandre asko makroekonomian ez dira adituak izango, baina eguneroko ekonomia, lan erreproduktiboa eta zaintza inork baino hobe ezagutzen dituzte. Asko dugu haiengandik entzuteko eta ikasteko”, dio Etxebarrietak.

“Aurpegi eta ahots berriei atea irekitzeko gai berriak lantzeko aukera zabaltzen du. Hedabideetan ikusezin diren

gaiak azaleratu eta esparru pribatuan gelditzen diren gaitegiek argia ikusiko dute; eta horrek errealtatea ulertu eta erakusteko beste bide batzuk eskainiko ditu”, uste du Olazarrek.

Subjektu pasibotik aktibora

“Hedabideetan subjektu pasibo gisa agertu ohi dira emakumeak sarri. Haiei buruz hitz egiten da, haiei ahotsik eman gabe. Protagonismorik bilatu nahi ez izatea eta lehen lerrotik aldentzea eragiten du horrek”, gogorarazi du Etxebarrietak. Olazarren aburuz, “emakumeek subjektu aktibo izatera hartzen duten heinean egingo dute euren lekua jendartean”.

“Gai ‘serioak’ gizonak jorratzeak jendartearen iruditegian eragiten du, errealtatearen argazki desitxuratua ematen du. Badirudi emakumeek ez dakitela ekonomiaz edo zuzenbidez”

Oihana Etxebarrieta Legrand



Oihana Etxebarrieta (ezkerrean) eta Eider Olazar. Erabiltzaileek eurek elikatu ahalko dute datu-basea. Emakume bakoitzaren fitxa ahalik eta gehien osatzeko haien inguruko bideoak, idatziak, egindako lanak eta proiektuak igotzeko tarteak eskainiko du webguneak, baita aditu berriak proposatu eta haien kontaktuak txertatzeko aukera ere.

Finean, exijentziarekin zerikusi handia du horrek guztiak. “Emakumeok auto-exijentzia gain, kanpo exijentzia izugarria dugu. Jendar-teak ez die berdina eskatzen emakumei eta gizonei”, dio Etxebarrietak. “Musika jarriko nuke horren adibide. Taldeetan tresnaren bat erdipurdi jotzen duten milaka gizonezko aurki ditzakegu, konplexurik gabe igotzen dira ohol-tzara. Emakumeek aldiz oso ongi jo behar dute bateria, baxua edo dena delakoa taula gai-nera igotzeko. Berdin autoarekin ere. Emaku-meok gaizki gidatzen dugula orokortu da jen-dartean, istripu gutxiago izaten ditugula frogatua egon arren. Besteei demostratu behar-eta gure burua justifikatzen ibiltzea nekeza da, oso”, gaineratu du hondarribiarrak.

Olazarrek ere hala uste du: “Esparru publikoan aritzeko segurtasun falta dakar horrek. Zuzenekoei beldurra, kamera eta mikrofono aurrean jartzeko erreparoa edota idazteko ziurtasun eza”.

Herri hedabideetan kezka

Euskal kazetarien sektore batean badago gaiari heltzeko interesa eta ardura. Horren erakusgarri izan da orain pare bat aste UEUK antolatutako *Generoaren tratamendua kazetari-tzan. Lanerako tresnak eta estrategiak* mintegia.

Etxebarrieta irakasle aritu zen bertan eta azpimarratu duenez, “ikastaro oparoa izan da. Hurbildu direnek jarrera aktiboa izan dute eta aurrera begirako proposamen interesgarri ugari egin dituzte. Komunikabideak elkarrekin antolatu eta hainbat gai modu berean jorratzeko ideiak atera dira. Esaterako, zain-tzaren gaia ekonomian lantzeko ideiak onar-pen zabala jaso du”.

“2012ko Topaketa Feministetan gai horri heldu genionean ohartu ginen hainbat ema-kume kazetari haien gain hartzen zutela euren hedabideetan emakumeen presentzia areagotzeko ardura. Horrek zama handia suposatzen du, eta baliabideak sortzeko beharra ikusi genuen”, dio Olazarrek.

Hortaz, euskal hedabideen eskari bati erantzun nahi dio proiektuak. “Herri komu-nikabideetan gogoia badago joera aldatzeko, baina tresnak behar dira kazetari laguntze-ko”, gehitu du tolosarrak. “Egungo kazetari-tzaren azkartasuna medio, hausnarketarako tarte txikia dago eta bide errazenera jotzen dugu maiz, betiko diskurtsoetan eroriz”.

Ildo horretan gida elektronikoa aurkezteaz gain sentibilizazio eta formakuntza saio batzuk eskainiko dizkiete interesa duten kazetariari. Erreminta nola erabili erakutsi eta

Erabiltzaileek elikatuko duten tresna

GABILTZA izena hartuko du atariak, mugimendua, dinamismoa eta aurrera egitearen ekintza irudikatzen. “Geldirik ez gaudela, bagabiltzala adierazi nahi dugu. Gainera *bil* horrekin erabiltzaile eta adituen biltoki izaera islatu nahi da”, azaldu du kazetari hondarribiarrak.

Euskal Herri osoko adituak biltuko ditu egitasmoak: euskaldunak eta erdal hiztunak, feministak eta euren burua feministatzat ez dutenak, baina esparruren batean edo bestean zeresana izan dezaketenak. Oraindik ez dute aditu kopurua zehaztu, baina ahalik eta datu-base aberatsena sortu nahi dute. Horretarako, erabiltzaileek eurek elikatuko duten sistema ipiniko dute martxan. Datu-baseko

emakume bakoitzaren fitxa ahalik eta gehien osatzeko haien inguruko bideoak, idatziak, egindako lanak eta proiektuak edota elkarriketak igotzeko tartea eskainiko du webguneak, baita aditu berriak proposatu eta haien kontaktuak txertatzeko aukera ere.

Web orriaren diseinua eta antolaketa zehaztuta dituzte jada. Bilatzailea eta atalak finkatuta, informatika alorra lantzen dabilta egun. Besteak beste, aditu eta arituen kontaktuak, albisteentzako txokoa eta dokumentazio esparrua jasoko ditu atariak. Kazetariez gain, herritar ororentzako tresna izatea du helburu, eta horregatik, formaziorako txokoa ere izanen du Gabiltzak. Generoaz kaleratutako txostenak,

eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak iragarri eta ipi-

niko dira bertan. Hala nola, hizkuntzaren erabilera sexista saihesteko gidak. Gestio lana eta alderdi juridikoa ere lotu dituzte, Datuen Babeserako Legeak arautzen dituen zehaztapenak berebiziko garrantzia baitute halako zerrendetan.

Harreman sarea osatzeko eta akordioak bilatzeko baliatuko dute uda. Hainbat esparrutako kolaboratzaile eta “aliatuak” bildu nahi dituzte ahalik eta sare handiena sortzeko. Jada akordio sendoa lortu dute UEUrekin; ondorioz Inguma, Euskal komunitate zientifikoaren datu-basea, elkartrukerako lagun izanen dute. EHUKo Berdintasun Zuzendaritzarekin ere harremanetan daude, eta askotariko herritarrekin hasiak dira elkarlanean. Irailean hasiko dira webgunea adituen fitxekin osatzen eta urte amaierarako bukatu nahi dute proiektua.



genero ikuspegia modu egoki eta eraginkorrean lantzeko hainbat gako emanen dituzte.

Bestalde, proiektua garatzeko bi eredu aurrekari erabili dituzte erreferentzia gisa: Sevillako emakume kazetarien taldeak orain bi urte osatutako 300 emakume adituen gida digitala eta Britainia Handian sortutako The women's room egitasmoa.

Borondatetik konpromisora

Egileen arabera, zenbait gauza aldatzen ari dira azken urteotan, baina lan handia dago aurretik. “Ohartu gabe bada ere, sistema patriarkalaren moldeak erreproduzitzen ditugu etengabe. Kazetaritzan ere eguneroko ogia dira —dio Etxebarrietak—. Horregatik iruditzen zaigu kontzientziazioa

“Ahots berriei atea irekitzeak gai berriak lantzeko eta esparru pribatuan gelditzen diren gaitegiek argia ikusteko aukera zabaltzen du. Errealitatea ulertu eta erakusteko beste bide batzuk eskainiko ditu”

Eider Olazar Elduaiei

bezain garrantzitsua dela urratsak ematen hastea. Garrantzitsua da kazetariak estereotipo sexistak eta genero rolen banaketa saihestea”.

“Egia da ereduak aldatzen ari direla eta medioetan emakumeen presentzia areagotzen ari dela, baita orain arte gizonezkoenak kontsideratuak izan diren esparruetan ere. Baina kirol albisteak beti bezalakoak dira oraindik ere, aurkezlea emakumea izanagatik”, kritikatu du Olazarrek.

Kazetari tolosarraren ustez, zuzendaritza edo ardura postuetan emakumeak ari diren hedabideetan, beste sentsibiltate bat nabari da; gaitegia zabaldu eta beste balore batzuk lehenesten dira. “Ez du esan nahi beti hala denik, baina ikuspegi parekideagoa egon dadin laguntzen du”.

Etxebarrietak azpimarratu du, azkenik, gaiak genero ikuspuntuarekin lantzea ezin dela kazetari bakar batzuen esku gelditu: “Hedabide baten lana bermatzeko medioaren ildo politikoaren baitan txertatu behar da ikuspegia,

eta alor guztietan aplikatu. Lan egiteko eran, edukietan, lankideen arteko harremanetan eta gaien tratamenduan”. ■



ABORTATZEKO ESKUBIDEA

30.000 lagun bildu zituen mobilizazioaren dokumentala

Espainiako Estatuan inoiz egin den manifestazio feminista jendetsuena izan zen Madrilén, otsailaren 1ean. Estatu osoko 30.000 lagun baino gehiago elkartu ziren, abortatzeko eskubidea murriztu nahi duen lege-erreformaren aurka. Dokumentala aurkeztu dute orain.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

YO DECIDO. EL TREN DE LA LIBERTAD (Nik erabakitzen dut. Askatasunaren trenea) du izena dokumental kolektiboak eta lege-erreforma- ren kontrako protesta itzela du ardatz. Manifestazioaren ideia Asturiasko talde feminista batean jaio zen, espontaneoki, amorrua eta aldarrikapen nahia nola bideratu eztabaidatzen ari zirela. Madrilera joango ziren, herri eta lurralde ezberdinetatik, trenez, askatasunaren trenean, “askatasuna delako gure aldarria, emakumeon askatasuna gure gorputzarekiko, emakumeon askatasuna gure osotasun fisiko eta moralari eragiten dioten erabakiak hartzeko”, dio taldekideetako batek.



Ez ukitu nire uteroa gero!

Amsterdam, Buenos Aires, Erroma, Paris... Espainiako Estatuko herritar eta emakumeei babesa emateko nazioartean egindako elkarretaratzeak ikusiko ditugu dokumentalean. Antzina Espainiatik abortatzera zihoazenak nola artatzen zituzten azaltzen du Edinburgoko bizilagun batek. “Ezin dut sinetsi gauza bera aldarrikatzen egotea hogei urte geroago, tamalgarria da”. “Ikaragarria da gizonak erlijioa baino ez hartzea kontuan. Ez al die lotsarik ematen gu Erdi Arora bidaltzeak? Ez dute inongo aitzakiarik emakumeon askatasuna arriskuan jartzeko. Ez ukitu nire uteroa gero! Sabelen greba orokorra! Emakumeak boterera!”, oihukatzen du emakume batek Bruselan.

Jarraian, abortatzeko eskubidearen alde egin diren hainbat ekimen bildu dituzte lanean: emakumeak euren gorputza ondasun higiezin gisa erregistratzen, performancea tren batean, komisarian norbere burua errunduntzat aurkezten abortista izateagatik...

Emakume zinegileen elkarteko 60 lagunek baino gehiagok lagundu dute 42 minutuko dokumental honetan eta sarean dago ikusgai (eltrendelalibertad.com). Gainera, leku ugaritan ari dira proiektatzen (Irunen eta Iruñean, esaterako, eman dute dagoeneko).

Eta manifestazioaren egun handiari helduko dio ikus-entzunezkoak. Pankartaz eta kamiseta morez betetako trenak, Madrilera bidean. Manifestazioko irudiek ongi irudikatzen dute egun hartako festa eta aldarri giroa. Tartean, manifestariei eurei jarriko diete mikrofonoa, beraien erreibindikazio, esperientzia eta bizipenei –garai bateko abortu klandestinoei buruzkoak, beldurgarriak–. “Gallardón faxista hutsa!”, “ez ukitu gure obarioak!”, “ministro jauna, ez gaituzu garaituko!”... Askotariko lelo eta oihuak entzun ziren manifestazioan. “Leku eta adin guztietako emakumeak gaude hemen, eta indar eta elkartasun honek ez du mugarik. Adin txikikoak bagina bezala tratatzen

gaituen eta atzerakoia den legea geldituko dugu, ez dugulako lege hori nahi. Ez dugu nahi!”, dio manifestari batek. “Abortatzek ez du zerikusirik ideologiarekin, ezta une historikoarekin ere. Beti gertatu da, kontua da zein baldintzatan ematen den erraza ez den erabaki hori”, beste batek. “Hipokrita hutsak dira; beraiek egiten duten guztia gainontzekook ez dezagula egin inposatu nahi dute”.

Gizonek ere hartu zuten parte protestan, jakina. “Manifestazio honetan nago erabakitze eskubidearen alde, arrotza zaigun moral bat inposatu ez diezaguten, eta emakumeenganako errespetuagatik”.

Begoña Piñero Les Comandes talde feministako buruaren hitzaldia utzi dute amaierarako: “Emakumeak ere lehen mailako herri-tarrak gara. Badakigu erabakitzen, noiz, non eta norekin nahi dugun ama izan, ez dugu haiek esaterik behar, ez dugu behar Elizak eta eskuin-muturrak gidatzerik”. ■





MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Kapitalismoa gainbehera ote?

JASATEN ARI GAREN krisialdi sakon hau dela eta, pentsalari bat baino gehiago hausnartzen ari da sistema honen azken arnasaldiak izango ote diren. Horrela pentsatzen dutenak ez dira lehenak, ezta ere azkenak. Izan ere, kapitalismoaren egin du modu objektiboan, gainera, demostratzen saiatu ziren XIX. mendean David Ricardo edo Karl Marx bezalako pentsalari ezagunak; Keynes bera ere kezkatuta zegoen kapitalismoaren etorkizunarekin eta neurriak proposatu zituen sistema biziraunarazteko. Hala ere, guztien artean, deigarria egiten da Harvardeko presidente ohiak eta gero Clintonekin altxor buruak, Lawrence Summers jaunak, galdetzen duenean ea zer gertatuko litzatekeen kapitalismoa ezin badaiteke erreformatu. Summersen besteekiko alde handiena, hitzaldi bakoitzeko 135.000 euro kobratzean datza; hori guztia kobratu ondoren edozein gauza esan daiteke, ezta irakurle?

Paul Krugmanek ez dio diru politikari eraginkortasunik aurreikusten, nahikoa erabili delako emaitza arbuia garriekin. Horregatik itxaropen osoa aurrekontuen kudeaketa egokian dauka. Gobernuek gehiago gastatu behar lukete inbertsio publikoetan, inbertsio pribatuak etenda edo desbideratuta daudelako

Izan ere, azken urteetako hazkunde tasak oso apalak izaten ari dira, bai Japonian baita Europar Batasunean (EB) ere uzkurraldia hasi zenetik. Eginahalak egin dira ekonomiak hazkunde bidean jartzeko, baina ezinezkoa izaten ari da. Interes tasak ezin dira gehiago jaitsi zero inguruan daudelako. Badirudi ekonomia geldiuene sakonean sartuta dagoela eta ohiko neurriek ez dutela eraginik, batik bat, EBen. Espainiako Estatuan ere antzeko zerbait gertatzen ari da, epe laburrean hazkunde tasa apalak aurreikusten direlako.

Geldialdi sakon horren arrazoiak lau dira: 1) Hiru hamarkadan mozkin tasek behera egiteko joera izan dute. 2) Azken

hamahiru urteetan lanaren ekoizkortasuna ez da handitu edo atzeraldia pairatzen du. 3) Barne eskariaren murrizketa 1980tik hona, hein batean kredituen bidez eutsi izan zaion arren; eta 4) inbertsio ekoizkorren beherakada 2001etik aurrera, nahiz eta pizgarri ugari eman diren, bai Grespanekin, baita Bernankerekin ere. Summersek ez ditu kontutan hartzen populazioaren bilakaera eta berrikuntza-aren agorraldia.

Eta nola irten motelaldi luze horretatik? Neoliberal batzuek diote “austeritate hedakorra” dela irtenbidea, horrela oinarri sendoak jarriko direlako hazkunde paregabea eta iraunkorra ahalbidetzeko; austeritateak ez duela hazkunde ahultzen, alderantziz baizik. Beste batzuen ustetan, hazkunde ahularen arrazoiak da gobernuak zorraren kudeaketa okerra egin duela, eta besteren artean, proposamen bi egingo dituzte: 1) Enpresen gainera zergak jaitsi eta 2) estatuaren zama ekonomikoa arindu.

Beste alde batean Paul Krugmanen proposamena legoke. Ekonomialari horrek ez dio diru politikari eraginkortasunik aurreikusten, nahikoa erabili delako emaitza arbuia garriekin. Horregatik itxaropen osoa aurrekontuen kudeaketa egokian dauka. Izan ere, gobernuek gehiago gastatu behar lukete, batik bat inbertsio publikoetan, inbertsio pribatuak etenda edo desbideratuta daudelako.

Inbertsio pribatuak ez daude geldirik aurrezki ezaren ondorioz. Izan ere, enpresa handi ez-finantzarioek diru asko daukate: 2,8 bilioi dolar. Alta, dirutza hori gehiena akzioak erosteko erabiltzen dute, ez inbertsio errealek egiteko. Enpresa horien aktibo ez-materialak (markak, patenteak...) berauen balioaren ehuneko bost zen 1970ean, eta gaur egun, ehuneko 60ra igo da.

Azken finean, inbertsio finantzarioek errenta eta aberastasunaren banaketa aldatzen dute, txiroen kaltetan, eta ekonomia errealek geldirik jarraitzen du. Hori da kapitalismo finantzarioaren ekarpena!

Eta hala ere, zaila da kapitalismoaren gainbeherako zantzuak atzematea. ■





Hegoaldeko langile pila ari da Iparraldean lan eske...

► ZE PORTZENTAIAN EGITEN DA TRATUA EUSKARAZ ?



► frantsesez ?



► espainieraz ?



Aferaren jakitun, nafarroako diputazioak lekartzeko bere egoitza alokatuko du HIZKUNTZ-MURGILTZE IKASTETXEARI...



Karlos Gorrindo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



INIGO AZKONA

Zuberoa

I HAVE A DREAM. Iratzarrik egiten diren horietakoa izan da. Oka ibaiko ibilguan zehar, sei arraunlarik dihardute arraunean, indar betean, eta patroi eta gidari, Zuberoa, hamar urteko neskatala alai-beltzarana, begiak eztizkoak eta elurrezko irribarrea, ahots sendoz eta irmoz aginduak ematen gazte segailei: “Bateraaa”. “Eroaaaaan” “Arrauuuun”. “Atzeraaaa”. “Eskegiiii” “Hainkaaaaak”. “Goazen goraaaa”. “Emon estriborreraaaa”. “Trinka baborre-raaaa”. “Amaaaaituuuu”.

Hunkituta ikusi ditut arraunak uretan murgildu eta indarraren indarrez nerabeek aurrerantz egiteko erakutsi duten gaitasun eta kementa. Zazpiak batera, hamar urteko neskatala liderraren agindu adoretuen zain, helmuga kokotaldean, itsu eta norakorik gabe joango bailiran.

Baina aurrera begira tente, zutik, muga lerroa begien bistatik desbideratu barik, lemazaina: Zuberoa.

“Oi gure herria, zer hintzen eta non hago (...) zantpatua, itoa, zikiratua, ahuldua eta ohitua bortxara halabeharrez, ez ote duka jada kemenik, hire hatsa sendotzeko”. Benito Lertxundiren ahots igarlerekin batera, gogora etorri zaizkit, gero, gure politikarien diskurtso antzu eta negartiak; ekonomia zulo beltzera erori izanaren arrazoi obszenoak; Espainia eta Frantziarekiko gure menpekotasun jasanezina eta haien

guganako jarrera larderiatsua: hezkuntza inposatua, osasungintza endekatua, kultura baztertua eta gure hizkuntzaren egoera tamalgarria.

Euskaldunok norbait garen plantak egiten dihardugu denbora gehiegiz. Eta izan ez gara inor. Eta izan bagara nor. Baina izate hori betiere inoren pentsura

dago. Ez gaudelako bat eginda eta European erakutsi ezin dugulako gizarte masa trinkoa dagoela proiektu eskuragarri baten atzetik.

Eta nekatuta gaude negar egiteaz, eta gogaituta amorratuta egoteaz, eta nardatuta lortu ez izateaz eskuratu nahi dugun helburua.

Eta ametsetan jarraitu dut, Urdaibaiko paisaia bukoliko ederra aurrean, Zuberoaren agindu irmoak entzuten, eta irribarrea etorri zait ezpainetara, eta une labur

batez otu zait, halaber, letoniarrek baino lehen, kataluniarren aurretik eta Gure Esku Dago proiektua gauzatu aitzin, izan direla gurean eskuak batu egiten dituzten saregileak, amaraun sare ehuleak, beharrezkoak direnak mapa historiko-politiko berria egituratzearren.

Amets konsolagarria, hortaz, Zuberoarena: bide-erakusle, esku luze sendoen aitzindari, norabidea zein den agintzen. Bat eginda. Zazpiak bat. ■



Nekatuta gaude negar egiteaz, eta gogaituta amorratuta egoteaz, eta nardatuta lortu ez izateaz eskuratu nahi dugun helburua

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Urak handi dire

EB ETA AEBEN ARTEKO tratua negoziatzen ari dira. Ez da ezer geldituko merkaturik at, larru *puxinka* bakarra ere ez noski. Diru aldetik kontrolatzeko alor emankorak badira, hala nola garraioak, postak eta telekomunikazioa orokorrean, osasuna, laborantza industrial eta ikerketa. Energiak ahanzi gabe.

Ossau ibarrean aintzirak eraiki ziren Bious-Artigues eta Artouste aldean, biek indar hidroelektrikoa ekoiztea helburu. EDFk kudeatu SHEM sozietatearen aurrari aurtien Europako firma goseti laukote bat gehitzen zaio erabilpenaren jabegoa nork eramango duen lehia garratzean.

Larruntzako auzapezak deus egin gabe hainbeste sos ekartzen dion egitura ez luke kanpotarren esku utzi nahi, baina urte oroz milioi bat euro irabaztearen ametsak bere kementa biderkatzen du enkante horretan.

Ihardoki poltsa asko bada oraindik hausteko European, merkaturak aberatsenen egiazko paradisu bihurtu dadin. Ossaun elektrika eta Tesalonikan ura pribatizatzen dabilatzala, ageri da sistema neoliberal, gerra betean, martxarik hoberenean aitzina doala.

Alaina... ■





Ramon Etxezarreta

♦ PSE-EEKO KIDEA

Dena egiteko

LIPUARENGANDIK ihes egiten den bezala aparatutik aldendu nahi izan zaizkigu, itxuraz, Espainiako Alderdi Sozialistaren idazkaritzako hautagaiak. Politikagintzak eraman duen burubideak horretan utzi ditu politika bera eta alderdia, egingakoen ardura, ondo egindakoen barne, azaltzeko lotsatan. Badirudi orain artekoak behar zen lekuan eta moduan egon ez bagina bezala gertatzen ari dela denbora berrien atari behar omen deskreditu garai hauetan.

Aparatuak berak ere bare eta mantso irudia, ez politikoa-renak, agertu nahi izan dio gizarteari baina hautagaietako bati larrutik ordainarazi diola esango nuke. Hirugarrenak aparatuaren antagonista nagusia zirudien, alderdiaren ertz kanpoaldekoa; bigarrenak aparatua ukatu behar izan zuen sinesgarritasuna irabazi nahian, aski ez balitz bezala hura derri-gortu izana militanteen boto zuzeneko hautes-prozesua ekitera; lehenak eta garaile atera denak zirudien kontinuisismoaren eta aldaketa kontrolatuaren berme, aparatuaren aldekatasun ezkutuko baina disimulgaitza medio.

Hala joan dira lehen pausurako ezinbestekoak ziruditenak, gidari berri bat aurkitzekoarenak. Egina dago. Baina zail da hiru aukerak zituzten ezberdintasunak bereiztea eta hiru diskurtsoen eduki eta programen arteko aldeak, baldin badaude behintzat, bereiztea. Badago bada denbora berrien irudia eta hotsa jarriko diena, idazkari nagusia. Orain diskurtso eta jarrera berriak zein diren ikusi

beharko da benetako aldaketa dela frogatu ahal izateko.

Ortodoxia instituzionalak ia itotzera ekarri dugun alderdi sozialistak eginkizun dezente dauzka aro berri honetarako. Alderdiaren eta erakundearen erregenerazio garden bat gabe irauten ere lanak izango lituzke gertatuko denik ez dirudien eskuinaren porrot edo kataklismo ustekabeko bat ezean. Herritarron konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa du.

Ez populista, ez erradikaleriazkoa eta ez nazionalista den diskurtso ezkertiarra erakitzeke ekarpenak egin beharko ditu, European horretarako erreferentzia politiko eta intelektualik ikusten ez den sasoi honetan. Espainiako nazionalismoekin nolako solaskidetza

Ortodoxia instituzionalak ia itotzera ekarri dugun alderdi sozialistak eginkizun dezente dauzka aro berri honetarako. (...) Herritarron konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa du

izan definitu beharko du, eta PPren nazionalismoarekiko nolako tartea mugatu. Beste alderdiek buruen hautu zuzena egiten hasten diren arteko denbora dauka, ekonomiaz, Kataluniaz eta ETarik ez dagoe-nerako proposamen politikoak pentsatzeko. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Gero arte
Palestina!



XDZ

**Ruben Sanchez
Bakaikoa**

♦

Doinua: Juana Bixenta Olabe.

Bihotz-begiak gor iltzatuta,
telebistak automatizatuta:
hiru militar ta bi hegazkin,
hurrena errautsak ta lau gorpuzkin.
Mandoa hartu,
sentipen dosia baloratu,
noiz piztu eta noiz amatatu.

Ez txuri, ez beltz, ez denez ezer,
ez gaude prest egiteko edozer,
jarrera ezberdinak izateko
eskubidea beti tarteko...
Baina ez dakit den,
jarrera ezberdin baten ondoren,
edo asko axola ezaren.

Albistegiek ez badakarte,
zutaz berri gehiago, gero arte!
Berriz ere hurrengo sarraskian
mobilizatuko gara agian...
Gu bitartean,
siestan gaude ta ez jo atean,
onak izan ta bizi pakean! ■



Udako gomendioak

Hondartzara, mendira, baserrira edo noranahi zoazela, besapean zer eraman proposatu nahi dizugu orriotan, etzanaldietan zabaldu eta gozatzeko. ARGIAko Erredakzioko kideen bahetik pasatako argitalpenak dituzu, aurten argitaratutakoak gehientsuenak, baina badira kontzertura edo zinemara bidean jarri nahi zaituzten proposamenak ere. Honez gero, zeure planak ondo eginak izango dituzun arren.



Laboa-Bastidaren hunkidurak

MEMORIEK kolektiboak izan behar dute, sinesgarriak izanen badira. Horregatik, Mari Sol Bastidak *Mikel Laboaren biografia bat* idatzi du. Bat. Laboaren Bat/Hiru biografia irudika dezaket. Lau/Bost eta Hamaika ere. Ez 13, ordea. Ez dok Amairu. Biografiok Zumetaren koloreetan imajinatu ditzaket.

Mari Solek topikoak saihestu ditu Mikel deskribatzean. Nik, alta, topiko bat ifrentzuz paratuko dut: “Emakume handi baten atzean, artista handi bat dago. Edo, haren abaroan artea ernamuindu daiteke”. Bastidarik barik nekez irudika dezaket Laboaren obra.



Biografia

Memoriak
(*Mikel Laboaren biografia bat*)
Mari Sol Bastida.
Elkar, 2014

Memoriak esperientziaren eta aske bizi-nahiaren irudikapen kolektiboa da, garai bateko herri kulturaren eta sorkuntzaren irudipena. Pena eta poz partekatuen emaria. Ez dago *bat*, *bi* barik. Bi horretan kolektiboa dago. Eta kolektiborik ez dago, familia, kuadrilla edota lagunik gabe.

Gaztetatik, Laboaren kanteak itzalak argitu dizkidate eta argiak itzali. Ene bihotza irudikatzen lagundu didate, liburuaren azaleko Zumetaren irudiak antzo: ez gara *bat*, *bi* gara, gutxienez. Ez dago sorkuntza sufrikariorik gabe, ez maitasunik arantzarik gabe. Liburuari darion maitasuna itzela da.

Mari Sol Bastida ausarta izan da bere etxeko ateak zabaltzeagatik. Hots, Laboa-Bastida bikotea artista estoiko neurritsu zalantzakor eta lagunkoi baten kasta direla erakusteagatik.

Oi, antzinako bihotz! “Ene bihotz, buztinezko bihotz, etxe txiki hori, ahula, hauskorra, lau gelatako etxe hori”.

Eskerrik asko, euren etxean ene burua kausitu izanagatik. ■



Mikel Laboa, Jean Phocas eta Iñaki Salvador.

Mikel Asurmendi

Literatura

Atlantidara bialia
Jokin Muñoz.
Alberdania, 2000



Freskura atseginean

EZ DAKIT NIK zer dugun uda partean bidaiekin, urtean zehar egiten ez ditugunak denak egin nahi izaten ditugula. Baina fisikoki baino nahiago duenak bidaia liburuetan, urteko edozein sasoi zaio aldeko horretarako. Eta, udako gomendio, ez ote naizen ari proposatzen metabidaia bat. Ez, tituluak iradoki bezala, prezisamente Atlantidara. Ez, idazleak propio hala nahita, euskaldun askoren imajinarioaren baitako Erriberara –Valdorbati barna–. Ez. Katalunia aldean soldadu egon direnek, bai; baina zerbitzu garaikideagoak egiten ditugunok ere ondo ezagutzen, eta ondo pairatzen dugun Castejoneko bai. Zehatzago amona zenaren etxe handira, paseoa. Zer eta korraleko tejabana azpian esertzeko goxo-goxo, gaueko freskura atseginean.

Mendizaleen ohitura hautsiz, Etxauritik eguerdian aterako da ni bidaia, lau egunen buruan besta egiteko. Bitartean gertatzen zaizkionak, eta bururatzeko –bidaia oro baita, eta batez ere, barne-bidaia–, hobeto irakurleak berak deskubritzen baditu. Gauzatxo bat bakarrik: ez espero hemen kontzesio, erruki, miseriak; bertako kontu guztiak, Jokin Muñozek idatziak dira. ■

Aritz Galarraga

Igartza saria irabazi zuen proiektutik abiatuta

LIBURU BATI gerta dakioken okerrean oharkabean igarotzea bada, tarteka irribarra piztu, tarteka deseroso sentiarazi, tarteka nork bere burua gorrotarazten duen Danele Sarriugarteren eleberririk ez du inor epel utziko.

Bakarrizketa bizian, bikote haustura batek asaldatutako emakume gazte obsesiboak gordintasun osoz diseinatu eta deseraikitzen ditu bere giza harreman eta kontraesanak –erraiak, azken finean–, halako zorrotasunez non irakurlea ere bere buruari aitortu (nahi) ez dizkion egia horiekin parez pare jartzen duen. Protagonistak sexuaz, botere-harremanez eta jokatutako bakoitzaren atzeko zergati ezkutuek egindako gogoez ziztagarri dira, eta aldi berean iradokitzaile.

Esaldi korapilatsu sarkastikoen narratzailearen izaera eta kontakizunarekin bat egiten dute irakurketa batera trabatu gabe. Are, erritmo biziko bakarrizketak eta hitz errenkada bakoitzaren indarrak begiak paragrafo batetik bestera eramaten ditu ia nahigabe, kontakizunaren egitura ez-lineala konturatzeke jarraitzen den naturaltasun berarekin.

Irakurle bati gerta dakioken onena liburu berberak gozamina, pitzadurak eta galderak eragitea bada, Erraiak da uda honetan irakurri behar zenukeena. ■

Eleberria

Erraiak
Danele Sarriugarte.

Elkar, 2014



Lander Arretxea Bereziartua

**LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.**



SOINU PROFESIONALA

MEGAFONIA



Tel. / Faxe 945 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ

Zinema

Soshite chichi ni naru / Like Father, Like Son

Zuzendaria eta gidoilaria: Hirokazu Kore-eda.

Iraupena: 120 min.

Japonia, 2013. 120 min.

Aukeratu dezakegu nor maitatu?

BIKOTEARI bonba baten moduan jaurti diote berria ospitaleko buruek: euren semea beste batenarekin ordezkatu zuten jaio zenean, duela sei urte. Bazkalosteko foiletoirako abiapuntu dirudiena, familia ereduez eta guraso eta seme-alaben arteko harremanaz gogoetatzeko baliatuko du Hirokazu Kore-eda zuzendari japoniarrak, *Soshite chichi ni naru* (Nolako egurra, halako ezpala) lan ederrean. Orain arte hezi eta maitatu duten semearekin jarraitu ala umea ordezkatu nahi duten erabaki beharko du bikoteak. Garrantzitsuagoak ote dira geneak, sei urtetan garatutako harremana baino? Benetan zer bilatzen dugu seme-alabengan? Aukeratu al daiteke nor maitatu?... Galdera ugari planteatzen ditu Kore-edak, galdera pertsonalak, eta patxadaz, naturaltasunez harilkatzen ditu bidean sortuko diren zalantza, emozio eta hausnarketak, moralkeria kutsurik gabe. Zuzendariak gurasoen rola jarri du jomugan, seme-alaba zoriontsu izatea baino ez dutela nahi esango baiti-



zute aita-ama denek, berdin diola ez badute gurasoen antzik edo ez badituzte gurasoen espektatibak betetzen, baina konplexuagoa da egunerokoa.

Oro har, pelikulak kritika eta publikoa izan ditu alde hasieratik. Cannesen epaimahaiaren saria lortu zuen eta Donostiako Zinemaldiko azken edizioan, ikus-entzuleena. Euskal Herriko areto komertzialetan –gutxi batzuetan– eman ostean, DVDan ikusgai dago jada. Steven Spielbergek ere begiz jo zuen berehala eta bertsio estatubatuarra egin nahi du orain; ea ez duen zapuzten jatorrizkoak utzi digun ahogozoa. ■

Mikel Garcia Idiakez

Kartzelako angelu itsuak

ITZALPEAN, “bergizarteratze prozesu” izendatzen dutenaren muin-muinean bere bizitzaren zati bat pasa duenaren larruan jarriko zaitu Markel Ormazabalak, idatzi berri *Hemen naiz, ez gelditzeko baina* kartzela-kronikan. Kartografo paperean jarri eta lau hormen artera bidaia egingo duzu, pareta gurutzatu bezain laster izena zenbakiz trukatu dioten gatibuarekin kartzelaren angelu itsuak eza-gutuz.

Lisabö taldearen kantuarekin eman dio sarrera egileak, musikarekin dantzan irakurri beharrekoa den testuari, eta liburu osoan zehar egingo dizkizu kantuen aipamenak, gaiarekin jolasean. Bizipen pertsonaletik abiatuta, gure herri honetako seme-alaba gehiegik ezagutzen duten errealitatea dizu islatuko: barrote eta kartzeleroen artean segundo gutxiz bada ere ihes egiteko nahia, pertsona desintegratzeko instituzio horretatik ateratzeko gogoia.

Egileak ezagutaraziko dizkizu leihoari so pasa daitezkeen orduen gordina, lau paretaren artean egotearen gogorra, burdinazko hesi igaroezinez inguratuta eta beti buruan kanpo-koekin egon nahi eta ezinaren samina... Baina aldi berean erakutsiko dizu txikitik, egunerokoan horren guztiaren kontra egiteak dakarren duintasuna eta norbanakoaren zein kolektiboaren izena eta izana apurka mantentzeak pizten duen argia. ■

Kronika

*Hemen naiz,
ez gelditzeko baina*
Markel Ormazabal.

Txalaparta, 2014



Itsaso Zubiria Etxeberria

Musika

Hamabostaldi ibiltaria.
Musika Hamabostaldiaren zikloa

Piano-jotzailea: Josu Okiñena. Noiz: Abuztuak 13. Ordua: 20:30.
Non: Orioko San Nikolas eliza (Gipuzkoa).

Gure klasiko bat: Aita Donostia

MUSIKA KLASIKOAZ disfrutatzeko badaude aukera onak uda honetan, baina guztien artean saio intimista eta gozo bat gomendatuko nuke: Orioko San Nikolas Elizan Josu Okiñena piano-jotzaileak emango duen kontzertua, abuztuaren 13an 20.30etan Musika Hamabostaldiaren edizio honetako 'Hamabostaldi ibiltaria' izeneko zikloaren barruan. Egitaraua harribitxiz konposatuta egongo da, Aita Donostia egilea protagonista izanik. Ezagutzen ez baduzue Aita Donos-



tiaren musika, ezin duzue galdu aukera hau. Chopinen ukitua –pianismo dotore erromantikoa–, euskal folklore estilizatu eta inpresionismo frantseraren eragin nabarmena, hauek dira konpositore donostiar honen ezaugarri nagusiak. Kontuan hartzen badugu Josu Okiñena bakarlari sendo eta adimentsua dugula, teknika izugarriaren jabea eta, horrez gain, ikerkuntza musikaren arloan nabarmendu dela –orain dela hiru urte Euskal Herriko Unibertsitateak eta Donostiako Orfeoak eman zioten ikerketa saria justu Aita Donostiari buruzko lan batengatik–, pentsa dezakegu kontzertu ederra eta interesgarria izango dela.

Beste egile garaikide batzuen lanak ere entzuteko aukera izango dugu. Ravel eta Erik Satie-ren obrek inpresionismoaren freskotasuna ekarriko digute. Giroa nolabait apurtzeko, Ramón Paus gaur egungo konpositore bartzelonarraren eklektizismoaren ttantta batzuk izango ditugu. ■

Montserrat Auzmendi


UNAI P. AZALDEGUI



Kaliforniakoak

APIRILA, *Hobe isilik, Parisen bizirik naiz, Nevadako egunak, Pendrive, Euli-giro, Alferrik ez balitz...* Balizko irakurleetan nork bere zerrenda eginga du honezkeror. Irakurritako liburuena, irakurri zain dituenena. Horietan, eta udako –eta noiznahiko–, liburu eta irakurketak haizatzen ari garenez, besteak beste Asun Garikanoren *Kaliforniakoak* irakurtzeko gomendioa egingo nioke irakurri gustu duenari. *Kaliforniakoak (1533-1848)* Euskaldunen lanak Kaliforniaren esplorazio eta kolonizazio garaian, Kaliforniaren historia bezainbat euskaldunetaz eta Euskal Herriaz jabetzeko eskuliburu bikaina zait, gure ikasleek Historia nahiz Literatura ikasgaietan barna derrigorrezko hezkuntza garaian nahitaez irakurri beharrekota, eta, berebat, ikastetxeetatik aparte gabiltzanok ere arretaz irakurtzekoa. Hori

Kaliforniakoak
(1533-1848)
Asun Garikano.
Pamiela, 2013



eginik, liburu honen bidea osatzeko gomendioa egingo nioke balizko irakurleari, eta irakurri beharrekoen artean jarri Kaliforniakoak honen bigarren parte, Garikano beraren *Far Westeko Euskal Herria*. ■

Miel A. Elustondo

Transmisioaren eztena

EZ DA hau udako irakurketa gomendio klasiko, toallarekin batera hondartzara arin eramateko horietakoa. Baina bada udarako irakurgai aproposa, arreta osoz, lasaitasunez murgiltzea eskatzen duen heinean. Antton Lukuren *Libertitzeaz* liburuaz ari garelarik, zertaz ari gara? Ene aburuz liburu bat eta asko daude *Libertitzeaz* honetan: batetik, toberari, libertimenduari, inauteriarri loturiko bideak kokatzeko eta ulertzeko ahalegina, euskal artedramaren definizioa zedarritzeko gogo (antzezte edo erakuste forma guztiak besarkatzen dituen kontzeptua, bertsoa, dantza edo kantua barne), Euskal Herrian

DANI BLANCO



Saiakera

Libertitzeaz
Antton Luku.

Pamiela, 2014

eman diren adierazpide eszenikoak tradizioarekin zein mundu osoko teatroko erreferente garaikideekin errailetatik lotzeko proposamena... funtsean, “antzerkia zer da?” galderari galdera berriak lotzeko ahalegina. Baina bestetik, bada egilearen biografiatik abiatutako zerbait, esperientziatik at sortutako teorizatze enetzat hotzegietatik harago norberaren haragian sentitutakoak paperean islatzeko nahia. Lukuk transmisio ariketa pertsonal eta -teatroa izaki- ezinbestean kolektiboa egin du, bere ibilbidean sortutako kontraesanak ezkutatu gabe, behinolako esanen argitzalak agerian utziz, trabesaren zentzua aldarri... funtsean, “zergatik egin antzerkia?” galderari galdera berriak lotzeko ahalegina. Jar ezazu orain, irakurle, “antzerkia”ren ordeztu beste edozein hitz -kulturaz ari- eta berdin egingo zaizu zirraragarri liburu hau. Lukuk plazaratu duen transmisio-eztena duzue haxe, idazkera aldetik bulkada arras teatrala duena, zirto eta trabes. ■

Oier Guillan

Hegoak ebaki banizkio...

BALKANETAKO GERRA atzean utzita, Euskal Herrira heldu den erizain bosniarra da Selma, *Habiak* komikiko protagonistetako bat. Abiadura Handiko Trena haren lurretatik pasatzen dela-eta baserria galdu duen Simon zaharra zaintzera etorri da.

Maite Gurrutxaga Otamendi amezketarrak sortu du *Habiak*, Dejabu panpin laborategiaren *Gizona ez da txoria* antzezlanari abiapuntu hartuta. Txalapartak argitaratu du Amañur bildumaren baitan, euskal komikigintzaren –nobela grafikoaren– aldeko apustuari segida emanez, Komikeri blogeko lagunek nabarmendu duten moduan: “Jose Carlos Fernandes-en *Munduko bandarik txarrena* argitaratuz ireki zuen 2013a Txalapartak, eta *Habiak*-ekin itxi. Liburu honetan Europako komikigintza berrienaren zantzuak sumatzen ditugu; Manuele Fior eta Camille Jourdy bezalako egileen estiloa du Gurrutxagak”.


Selma erizain bosniarra, hirira behartu duten Simon zaharra eta txoriak, hegala, hegan egin nahia. Deserria, lurra, sustraiak, giza harremanak, laguntasuna. Hitzez baino, marrazkien, koloreen bitartez adie-

Komikia

Habiak
Maite Gurrutxaga /
Dejabu panpin
laborategia.

Txalaparta, 2013

razten diren sentimenduak. Antzerkia, komikia, poesia. Pauso sosegatuz –baina etenik gabe– egiten du aurrera istorioak, eta horrek parada ematen du Maite Gurrutxagaren akuarela eta arkatzez marraztutako ilustrazioez sakonago disfrutatzeko: kapituluaren tonua markatzen duten koloreak, ikuspegi aldaketak... eta azal gogordun edizio zaindua. Irakurtzea merezi duen margolana da *Habiak*. ■



Jon Torner

Saiakera

*Goza daiteke gehiago.
Euskaldun baten
hizkuntza bidaia.*
Karmelo Ayesta.
Utriusque Vasconiae, 2013




Euskalduna eta zoriontsua

EZ DAKIT NIK zer dugun uda partean bidaiekin, urtean zehar egiten ez ditugunak denak egin nahi izaten ditugula. Baina fisikoki baino nahiago duenak bidaia liburuetan, urteko edozein sasoi zaio aldeko horretarako. Eta, udako gomendio, ez ote naizen ari proposatzen metabidaia bat. Ez, tituluak iradoki bezala, prezisamente Atlantidarra. Ez, idazleak propio hala nahita, euskaldun askoren imajinarioaren baitako Erriberara –Valdorbati barna–. Ez. Katalunia aldean soldadu egon direnek, bai; baina zerbitzu garaikideagoak egiten ditugunok ere ondo ezagutzen, eta ondo pairatzen dugun Castejoneko bai. Zehatzago amona zenaren etxe handira, paseoan. Zer eta korraleko tejabana azpian esertzeko goxo-goxo, gaueko freskura atseginen.

Mendizaleen ohitura hautsiz, Etxauritik eguerdian aterako da ni bidaia, lau egunen buruan besta egiteko. Bitartean gertatzen zaizkionak, eta bururatzen –bidaia oro baita, eta batez ere, barne-bidaia–, hobeto irakurleak berak deskubritzen baditu. Gauzatxo bat bakarrik: ez espero hemen kontzesio, erruki, miseriak; bertako kontu guztiak, Jokin Muñozek idatziak dira. ■

Onintza Irureta Azkune

Komikia



Persepolis
Marjane Satrapi.
L'Association (frantsesez)
Norma Editorial (Gaztelaniaz)

Persepolis

LIBURU BAT GOMENDATZEA ate bat zabaltzea da, galdera ikurri beldurra galtzea.

Nongoa da norbere bizitza liburu batean jasotzeko beharra? Norbere istorioa norberea bakarrik ote da? Mendea eta segundoa gurutzatu zirenean sentitutakoak ez al dira errelatoaren parte? Zerk batzen ditu Urruñ eta Teheran? Zergatik gara bizimoduaren fronte orotan hangoak hemen eta hemengoak han? Fidatzekoak al dira zauririk gabekoak? Gertatu ziren bezala gogoratzen ditugu gauzak ala gogoratzen ditugun bezala gertatu ziren? Zer inporta du egiak biluztasun zintzoenaren aurrean? Zeri buruzkoa da zinez *Persepolis*?

Nik ez dizuet liburu ona edo txarra den esango, estilo soil bezain xehearen gorazarrerik egingo, ezta goiko galderen zentzuzko arraposturik salatuko ere. Hendaia Parisera trenetan irakurri nuela baino ez.

Ez naiz sekula Irango iraultza islamikoaren fanatiko bat izan, alboko bidaia bezain ezezaguna zitzaidan Marjane Satrapi, ez nuen komikiak irakurtzeko joerarik, baina... Atea zabaldu zidaten eta ni sartu.

Orain, zure esku dago sartu ala ez erabakitzea. Zure eta *Persepolis* esku. Kontrakoa haizatu arren, etengabe erabakitzea baita bizitza. ■

Sustrai Colina



Poesia

Galdeak eta baleak
Josetxo Azkona.

Pamiela, 2014



61 urteko nerabe baten poesia

HAUXE DA idazle iruindar honen seigarren liburua. Itzultzailea lanbidez, irrati gizona zaletasunez, prosodia eta erretorikan maisu, irakurri eta entzun daitezkeen olerkiak egitea maite du Azkonak.

Aurreko lana *Haikuen bilduma* izan zen. Hura bukatutakoan oso bestelako poemak lantzeari ekin zion, agian Haiku japoniarren zurruntasunetik ihesean edo. Haietako batzuen bilduma da hau. Gai aunitzi buruzko gogoetak, poema bilakaturik: denboraren joana, heriotza, sexua, politika, gizartea, gaizkia, musika, haurtzaroa... gehienak ironiaz eta umorez berniztatuak.

Agian literaturazale jakintsuak esanen du olerki gehienetan pentsamenduak ongi harilkatuta eta errekurtsu literarioz ongi hornituta agertu arren, hunkidura sortzeko gaitasuna ez dela orri guztietan neurri berean aurkitzen. Agian. Nik ere poema batzuk besteak baino gusturago irakurri ditut. Eta baten bat bukatzu gabe utzi ere. Zergatik ez?

Baina gozatu egin dut eta burua ideiez bete gelditu zait. Testu ulergarriak dira eta benetako hezur-haragizko egile bat atzean dituztenak. Hori gustatzen zait.

Azpitarratzeko modukoak iduritu zaizkit batzuk: *Iqbal Masih*, haur esklabuari buruzkoa, *Piztien alde*, gizakion izaeraz mintzo dena, *Poltsikoak arakatzeko* garaiz esan ez ditugun gauzez ari zai-guna... eta bukaera Xabier Lete, XL, handiari eskainitako lerroak. Eta oso dibertigarriak eta ausartak (ganberroak ez esateagatik) Harira ez datozen galdeak ataletan bildutako nerabe urtetsu honek pilatutako galderak. ■

Reyes Ilintxeta

Saiakera

*Eskozia.
Independentziara
bidaia XXI. mendeko
Europan*
Xavier Solano,
Robin McAlpine,
Txente Rekondo.
Independentistak, 2012



Eskozia eta erreferenduma hobeto ulertzeko

DATORREN AZAROAREN 9AN Eskoziak erreferenduma egingo du erabakitzeko independente izango den edo Erresuma Batuan jarraituko duen. Euskal Herriak oso gertutik jarraitzen ari gara Eskozian gertatzen ari den guztia, baina ez dakigu askorik Eskoziari buruz, bere historia, ekonomia, kultura eta gizarteaz. Liburua elebiduna da —eduki bera erdia euskaraz (123 orrialde) eta beste erdia gaztelan (126 orrialde)— eta nazio hura bizitzen ari den prozesua hobeto ulertzen lagunduko dio hedabideen informazioetik harago joan nahi duenari.

1706an egin zuten bat estatu berean Eskoziak eta Ingalaterrak eta orain banatu egingo dira eskoziarrek hala erabakitzen badute. Xavier Solano Scottish National Partyko aholkulariak eskaintzen digu egungo Eskozia ulertzeko oinarritzko informazioa: historia apur bat, XXI. mendeko gizarte eskoziarraren ezaugarri nagusien azalpena eta erreferendumaren arteko bidearen nondik norakoak. Eskoziaren oinarritzko ikuspegi orokor bat hartzeko oso baliagarria.

Bigarren zatia Robin McAlpine, Isobel Lindsay-k eta Ben Wrayk idatzi dute eta prozesu honen iragana, oraina eta gero ulertzeko klabeetan sakontzen da. Eskoziako nazionalismoaren bilakaera, estatu britainiarren gainbehera, Eskoziako eskumenen berreskuratzea eta estatu britainiarra eta Eskoziaren arteko harreman ekonomikoen berri ematen da, petrolioak sortutako dirutzari arreta berezia jarritz.

Azkenik, Txente Rekondo nazioarteko analistak autodeterminazioa eta erabaki eskubidearen inguruko legedia nola dagoen jorratzeaz gain, Eskoziako independentzia prozesua Europen nola txertatzen den aztertzen du eta XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran Europen eman diren independentzia olatuen berri ematen du. ■

Xabier Letona



*Zerua
gainbehera dator*
Lorenza Mazzetti.

Igela, 2012

FERNANDO REY eta Xabier Olarraren eskutik heldu zen Lorenza Mazzetti, 86 urteko zine-zuzendari eta idazle italiarra, Argiako orrialdeotara. Zerua gainbehera dator eleberri autobiografikoak adina, Igela argitaldariako kideei elkarrizketan esanak merezi dute arreta (<http://www.argia.com/argia-astekaria/2413/lorenza-mazzetti>). Bere larrian bizi izandako tragedien mapa osatzeaz batera, narrazioa testuinguruan kokatzeko balio duelako, liburua idaztearen zergatiak eta gakoak azaltzen dizkigulako.

Haurraren ikuspegitik osatua da narrazioa, eta horrek ematen dio indarra, grazia eta tentsioa nobelari. Txunditu egiten du sarri bi neska protagonisten imajinarioak eta dotrinan ikasitakoari ematen dioten balioak. Baita maitasuna tengabe aipatu beharrak eta jendea horren arabera mailakatzeak ere.

Egileak berak esana, bere buruaz beste egitetik libratu zuen *Zerua gainbehera dator* idazteak. Emaizak, ordea, terapiatik harago eraman zuen idazlea. Literarioki laudatua, Federico Fellini zine-zuzendaria, esaterako, gerraz sekula irakurritako libururik dibertigarriena zela aipatu zuen. Ooren gainetik, faxismoaren eta integrismo erlijiosoaren kontrako salaketa dela esan liteke. ■

Garbine Ubeda Goikoetxea



MARIAN GORRAIZ

Mugimenduan zabiltzan horrentzat, hausnarketarako tresna kutxa

HERRI MUGIMENDUETAN ibiltzeak (edo zein delarik ere bere kolorea) aztarna utzi dizu bizitzan, nortasunean. Harribitxia den liburuxka honek iraganean izandako bizi-penak goldatzeko eta gaurko lan esparruetan eraginkorrako izateko klabeak pausatuko dizkizu, eta “militantzia”ri buruzko egungo ikuspegia eskainiko: Eguneroko bizitza bera militantzia dela, proiektu kolektiboak eta norberaren bizi-proiektua uztartzearen garrantzia, harreman sanoek eragin zuzena dutela emaitzan, antolatzeak dauden eredu horizontalen abanikoa... Herri mugimenduetan sumatzen zituzten galdera eta kezkei forma emanez, 2012 eta 2013an Joxemi Zumalabe Fundazioak hamaika lan saio antolatu zituen eta bertan hainbat herri mugimendutako 223 pertsonak (124 emakume eta 99 gizon) hartu zuten parte (beste artean Bilgune Feminista, Ikasle Abertzaleak, Herri-ira, Sortzen Ikasbatuaz, EHZ...). Herri mugimenduek, urteetako esperientziatik planteatu dute,



Saiakera

Dabilen harriari goroldiorik ez
Hainbaten artean.

Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014

aurrera begira zer elementu saihestu edo aldatu nahi duten, eta zer nabarmendu edo indartu. Bi kultura edo polo daude tentsioan, bakoitza bere alde on eta txar guztiekin: herria “sakrifizioetik” edo “bizipozetik” erakitzea.

Benetan pertsonengan oinarritzen diren enpresa guztientzat ere, ezinbestekoa den hobekuntzarako liburua: zehatza, argia eta laburra.

Liburua eta esperientzia pertsonalak biltzen dituen DVDa 5 euroan eskuratuko duzu. ■

Estitxu Eizagirre Kerejeta

HEGAN EGIN ----- PERTSO- NAIAREN IZENA	↓	SASITZA ----- SEIGARREN MUSIKA NOTA	↓	ANTZETSU, GAITU	 ZALDI ERO	HOBETO ----- FRUITU GORRI	↓	TEILAPEKO GANBARA ----- ALKOHOL TOXIKO	↓	ARTISTEN FINANTZA- TZAILE ----- TALAIAN DAGOENA	↓
ETNEKO ERREGAIA ----- DAGO	→						BENETAN ----- ... EGIN, ESKAINI ETA EZ EMAN	→			
↓		TITANIOAREN SINBOLOA ----- ENGAINUA, AZPIKERIA	→	PINU MOTA ----- UKULUA		↓	↓	↓			
TIRO JASA ----- EGURRA	→	↓						OKARAN ----- ZUR SENDOA DUEN ZUHAI- TZA	→		
↓				... GAINDI, OROZ GAIN ----- ZUBEROAKO HERRIXKA	→			↓		ABANTZU, KASIK ----- LOTSATI	→
GIPUZKOAKO UDALERRIA	NAFARROA- KO HERRIA ----- BUZTAN	→		↓		PERTSO- NAIAREN ABIZENA ----- URA	→			↓	
↓	↓					↓					
							SAIL, EREMU ----- ... ARISTI, TELEBISTA AURKEZLEA	→			561 ERROMATAR ZENBAKIZ
GAR, LAMA ----- ESKUZ KARDATZEKO TRESNA	→		BORONDATEZ ----- DUT, GIPUZKOAN	→			↓		DU, NIRI (AL- DERANTZIZ) ----- BIZKAIKO IBAIA	→	↓
↓			↓		JAKIN-MINA DUENA ----- PARA BOKAL BARIK	→			↓		
SASOI ----- ESATE BATERAKO	→				↓		ORTOGRAFIA KEINUA ----- KILOA	→		LITROA ----- TELEBISTA	→
↓							↓				
								BARATZE LANDARE	→		

- | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | H | S | | | | | G | M |
| Z | E | L | I | | | T | A | T |
| G | A | S | A | | | B | E | N |
| D | A | T | I | | L | T | E | L |
| Z | I | R | O | K | E | R | A | N |
| | | | | O | R | T | A | I |
| L | I | Z | A | R | T | N | I | A |
| K | S | U | H | A | Z | K | O | L |
| T | R | E | P | U | K | A | L | O |
| F | S | A | T | F | R | A | K | O |

Zakurraren biolina

UMEAK GINELA, txakurren bat azkura baretzeko edo arkakusoak haitzea hartzera bidaltzeko hankarekin hazka egiten ikusten bagenuen, “gitarra jotzen” ari zela esaten genuen. Txakurrek, ez dakit, baina zakurren batek joko du biolina. Biotz-jotzaile zakurren bat izango dela, alegia.

Jotzeko, biolinaren harien gainean uztaia dantzatu behar. Dantzak dakar musika, edo soinua. Uztaia hagar txoa, garai batean, pernanbuko (*Caesalpinia echinata*) zurez egiten

bazen ere, gaur egun beira edo karbono zuntzezkoak dira gehienak. Hagatxo horrek hari berezi bat tenkatzen du. Hari hori zaldien isatseko zurdaz osatzen da. Zaldiarena, garañoa edo zikiratua, baina beti zaldiarena. Behorren isatsa txizaz bustitzen da eta zurda ahulagoa du. Luthierraren arabera, uztaia hariak 150 eta 200 zurda artean izango du. Bioli-



Giovane donna con un violino (Emakume gaztea biolinarekin), Orazio Gentileschiren (1563-1639) margolana.

na ez den beste tresnetarako zurda gehiagokoak ere hariltzen dira. Hari instrumentu-jotzaileen artean diotenez, zurda zuriek soinu “leunagoa” eta beltzek “gogorragoa” sortzen dute. Itxuraz, beltzak batik bat kontrabaxuetan erabiltzen dira. Merkezurrean dabilzanek hari sintetikoak erabiltzen dituzte, nylonezkoak...

Uztaia hariak eta biolinaren hariak, bien artekoa gozatzeko, dantza ezta moldatzeko, igurtzialdiaren dardara—dantza guziak duen dardara— emankorra izan dadin, kolofonia behar dute. Horrek igurtzia, marruskadura areagotzen du, dantzan lotuagoan egiteko. Biotz-jotzailearen patrikan beti izango da kolofonia.

Zer da kolofonia? Batez ere koniferoetatik, batik bat pinuetatik (*Pinus* sp.) baina baita alertzeetatik (*Larix* sp.)

eta izeietatik (*Abies* sp. eta *Picea* sp.) eta ganauskietatik edo ahuntzadarretik ere (*Pistacia terebinthus*) eskuratutako erretxinetik sortzen da. Erretxina urtsua denean trementina deitzen zaio. Hura destilatuta sortzen da kolofonia. Horrez gain makina bat gai sortzen da erretxinetatik: bikeak, uiak, break... ■



JAKOBA ERREKONDO



Aho lorea

EZ DUGU loreak jateko ohitura handirik. Jaten dugunean, lorea ahoratzen ari garela jakin ere ez, askotan. Orburua (*Cynara cardunculus* var. *scolymus*), esaterako, ez dugu loretzat. Landareak neguan ernamuina mugitu eta kimua garatzen hasiko da. Muskildu eta lilitxak, lorea izango denaren zortanak, gora joko du. Gara honek ninikak ninikatzen ditu, ninikadura da hori. Gero pinpinatu egingo da, ninika muturretan pipilak pipiltzen hasiko dira. Pipila piportzen denean, toto betetzen denean, moztu eta ahora. Gazte gozo guri bigun leun ezti da gutizia. Bere horretan utziko bagenu, pipila lore bilakatuko litzateke. Argazkikoa horixe duzu, orburuaren lorea. Dotorea, pinpirin askoa! Argazkiko hauek, udaberrian jan ez zituztenak, udaren hasieran loretan Zestoako Iruretxiki baserrian, Ibañarieta mitikoan. ■

Janarien “ospea” aldatu egiten da (II)

XIX. MENDEAN mantenugaiak identifikatu eta sailkatu ziren, eta geroztik, irizpide zientifikoak erabiliz, substantzia eta osagai ugari aurkitu dira janari-edarietan, aurreko mendeetan erabat onartuak ziren usteak eta ideiak zalantzan jarri eta zenbait kasutan baztertzera. Horixe da urteen poderioz zenbait elikagairen kasuan gertatu den ospe-aldaketaren arrazoi nagusia.

XX. mendean nutrizioaren eremuan izandako aurkikuntzen ondorio gisa, lehen txartzat jotzen ziren elikagai batzuk orain ez dira hain txarrak, eta kasu batzuetan mesedegarri izatera ere pasatu dira. Alderantziz, betidanik osasungarritzat jo diren janari edo edari batzuen kasuan zalantzak sortu dira azken urteotan.

Joan den asteen arrautzaz eta arrain urdinaz jardun genuen. Aipa ditzagun, orain, beste hiru adibide:

Kafea

Duela gutxi arte, tentsioa altu zuten pertsonen gata, alkohola eta kafea murrizten zitzairen. Azkeneko hori ez edatea gomendatzen zen, iratzargarria eta bihotzeko gaitzen bat zutenentzat kaltegarria zelakoan. Hala ere, gaur egun gauza jakina da kafea aberatsa dela antioxidatzailetan, –polifenol izenekoetan, zehazkiago esateko– eta horregatik gorputza oxidazio zelularretik eta erradikal askeetatik babesten duela.

Alzheimerraren eta Parkinsonaren aurrean ere nolabaiteko babesa ematen duela pentsatzen dute adituek. Mesedegarritzat jotzen dute buruko minari aurre egiteko, bihotzerako, arterietarako eta gibelarako egokia izateaz gain. Diabetes-intzidentzia gutxitzen omen du, gainera. Ikerketa



Azken ikerketek erakutsi dutenez, txerri haragiak pertsona guztien eguneroko elikaduraren barruan egon behar luke.

batzuek diote kafea edateak gaixotasun kronikoak jasateko arriskua gehitzen duela, baina beste azterketa batzuek ez dute erlaziorik aurkitu.

Bestela esateko, hamarkada luze-tako ikerketen ondotik, zientzialariek ez dute oraindik frogatu inolako harremanik dagoenik kafeina kontsumo moderatuaren eta osasunerako arriskuen artean. Beraz, tea, kafea edo kafeina duten beste edari batzuk kontsumitzen jarrai dezakegu lasai asko, zentzu pixka batekin eta neurritz aritzen garen bitartean.

Txerrikia

Gure artean arazo kardiobaskularrak eta pisu-gehitzeak ugaritzen hasi zirenean, dieta guztietan txerrikia izan zen erabat murriztu ziren jakietako bat, betiere koipe desegokiaren lotuz. Hala ere, azken ikerketek erakutsi dutenez, haragi horrek biztanle guztien eguneroko elikaduraren barruan egon beharko luke:

txerrikia haragi mota osoenetakoa da, giharra batik bat –110 kilokaloria besterik ez ditu ematen 100 gramoko, beste batzuek baino askoz ere gutxiago–, eta koipe monoinsaturatu eta omega 3 gantz-azido ugari ematen ditu, arrainen antzera ia.

Esnea

Betidanik izan da oinarritzko elikagaia gizaki guztien jan-neurrian, gosarian, meriendan eta baita ohera joan aurretik ere presente baitzegoen. Eta nutrizioaren zientzia “asmatu” aurretik osorik kontsumitzen zen, koipe osoarekin alegia. Koipe mota identifikatu zenean, ordea, oso kantitate txikian egon arren, kaltegarritzat jo eta debekatu egin zen arazo kardiobaskularrak zituzten helduentzat. Helduen kasuan debeku hori arrazoizkotzat jo badaiteke ere, ume txikiak esne osoa hartzea gomendatzen da. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Grial Santuetako bat lapurtu dute

NATHANIEL DANCE-HOLLAND



Uztaileko bigarren astean Nanteos Kopa lapurtu zuten Ingalaterran. Adituek XV. mendekoa dela diote eta, beraz, mirariak mirari, ez dirudi Jesusen azken afarian erabilitako kaliza denik.

INGALATERRA, 1533. Henrike VIII.a Anne Boleynekin ezkondu zen Eliza Katolikoaren baimenik gabe. Orduan, parlamentuak Aita Santuaren aginpidea deuseztatu zuen eta erregea buru zuen Eliza Anglikanoa sortu zen. Henrikek abadetxe katolikoaren aurkako jazarpen kanpaina abiatu zuen, ahalezko erresistentzia gunetzat baitzituen.

1539an, Glastonburyko abadeak monasterioko ondasun preziatuena hartu eta hainbat fraiderek batera ihes egin zuen, erregearen mandataria iritsi baino lehen. Hasieran, Cardiganshireko Strata Florida abadetxeak eman zien babesa fraide iheslarietara. Baina erregearen atzaparrak bertaraino luzatzear zedela, berriro alde egin behar izan zuten. Galeseraino joan ziren eta Powell familiak Nanteos etxaldean eman zien aterpe fraideei eta zeramaten altxorari. Altxor hura, berez, olibondo egurrez egindako edontzi zati bat baino ez zen. Kontua da Jesukristok azken afarian kopa horretatik edan omen zuela eta hura hil ondoren Arimateako Josek Britainiara eraman omen zuela. Grial Santua zela, alegia.

Nanteos Kopa –hala esaten zaio– izen bereko etxaldean geratu zen mendetan, eta erromesaldi gune bilakatu zen ia, egur puskek sendatzeko ahalmena omen duelako. Azken urteetan kopa Steadman sendiaren eskutetan egon da, banketxe bateko kutxa gotorrean gordeta. Baina berriki, ontziak sendatze jarduerari

heldu dio berriro, eta uztaila hasiera arte gaixo dagoen emakume baten etxean egon da, Weston-under-Penyard herrian (Herefordshire, Ingalaterra). Itxuraz, kopak ez zuen emakumearen osasunean eraginik izan eta ospitalera eraman behar izan zuten. Emakumea, ez kopa.

Jabea kanpoan zela baliatuta, lapurrak emakumearen etxera sartu ziren uztailaren 7a eta 14a bitartean eta Nanteos Kopa ostu zuten. Orduz geroztik West Mercia poliziak, film epiko bateko protagonistak bairliran, Grial Santuaren bila dabiltza, ustezko Grial Santuaren bila, behintzat. Izan ere Nanteos Kopa aztertu duten adituek XV. mendean datatu dute pieza. Henrike VIII.aren jazarraldia baino mende bat lehenago, eta Jesus Nazaretekoak azkenekoz afaldu eta 1.400 urtera.

Erdi Arotik baxera zabala osatzeko moduko orotariko ontzi, kopa, plater, katilu eta azpilak izendatu dituzte Grial Santu: O Cebeiroko Grial Santua, Antokiako kaliza, Genoako *Sacro Catino* katilua, Ardagheko kaliza, Hawkstone Parkekoa... Eta baxeran pieza bat falta izanez gero, ziur berehala beste batek ordezkatzeko duela. Urrutira joan gabe, joan den martxoan Margarita Torres eta Jose Miguel Ortega del Río historialariek benetako Grial Santua Doña Urracaren kaliza dela eta Leongo San Isidoro kolegiatan ikusgai dagoela jakinarazi ziguten. ■



Arrastoak

Vietnamgo Gerra ez da bukatu Laosen

VIETNAMGO GERRAN AEBek 200 milioi tona bomba jaurti zituzten Laosen, eta horrenbestez Asiako estatu horrelk inoizko herrialde bonbardatuenaren marka tristea hautsi zuen: 833 kilo biztanleko. 1964an, bonbardaketak hasi zirenean, Laosek neutraltasuna aldarrikatu zuen, baina AEBen erasoak ez ziren eten. Orotara 270 milioi barreiatze-bomba bota zituzten, baina horietatik %30ek (80 milioi lehergailu) ez zuten eztanda egin. Ondorioz, 1964tik 30.000 laostar hil dira eztehandek eraginak; 12.000, gatazka amaitu zenetik..

2013an barreiatze-bonbek hamabi hildako “soilik” eragin zituzten Laosen, gerra amaitu zenetik kopururik txikiena. Uxo Lao izeneko gobernuak erakundeak joko bat asmatu du hurren bonbak bereizten ikas dezaten eta bateren bat topatzeko gero nola jokatu jakin dezaten. Baina kanpainaren emaitzak ez dira oraindik nabarmenak, 2014 honetako lehenei hilabeteetan hildako kopuruak dagoeneko dozena gainditu baitu. ■

ANDREW MCCONNELL



6 urteko haur honek ezkerreko begia galdu zuen barreiatze-bomba batek eztanda egin zionean.

«Herriarren subkontzientean dago administrazioak ez duela euskaraz funtzionatzen»

Zigor Etxeburuak (Donostia, 1970) 2011n, legealdia hasi zenean, erronka bati heldu zion: 2015ean Foru Aldundiak zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko zituen. Badaki ez dela hala izango. Dena dela, ez du etsitzeko asmorik, argi dauka administrazioak euskararen normalizazioan herritarrentzako eredu izan behar duela.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

Legegintzaldiko ekimen garrantzi-tsuenetakoa izan da kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak ezartzea, bai Diputazioan baita udal askotan ere. Zergatik da hain inportantea?

Instituzioek, egin behar dutena eginarazten dietelako enpresei. Legealdi honetan, sartu ginenetik, horixe esan izan dugu: euskararen erabilera arautzeko legeak egon badaudela, baina ez direla aplikatzen sarri askotan. Araudia ezartzeko bidea egin dugu. Gainera, orain arte genituen tresnak hobetu ditugu Aldundian bertan.

Zein tresna?

2009ko araudia nabarmen hobetu dugu. Gainera, udal guztiek ez zituzten hizkuntza irizpideak ezarrita, eta dinamika honi esker batu, lankidetzat proiektu bat sustatu eta ari ez zena erakarri dugu.

Irizpideak ezartzeak barrura eta kanpora begirako garrantzia duela diozu. Kanpora begira gizarteari mezu argia transmititzen zaio: benetakoa da euskara normalizatzeko asmoa, ez gara traba praktikoekin uzkur-tzen, eta bururaino eramaten dugu.

Ez gara hitzetan gelditzen. Gizarteak ulertu du behingoz serio heldu zaiola gaiari.

Batetik, araudia betetzen ari zaretela diozu, eta bestetik, Espainiako Estatu helegiteak-eta jartzen ari da. Legea urratzen ari zaretela dirudi.

Gai honek alor sozioekonomikoa euskalduntzea eragiten du. Jendar-teak egunero bizitzen duena normalizatzen du. Ez da hetereo, bizitzako esparru arruntetarako iristen da. Azken finean, enpresak zerbitzuak euskaraz eskaintzera behartzen ditu, eta horrek inplikazio handiak ditu. Enpresek langile euskaldunak behar dituzte, irudi korporatibo euskalduna, hau da, azken muturreraino sartzen da euskararen garapena.

“2010ean kontratazio publikoen %40an ezartzen ziren hizkuntza irizpideak, gaur egun kontratuen %93an”

Espainiako Estatuak gai horrek zein aukera ematen dituen oso argi ikusi du. Adostasun politikoa dagoela esaten da, baina euskararen normalizazioaren ezarpena geroratu egiten da; beti da gerorako. Ustezko aldekotasuna dago, baina praktikara iritsitakoan trabatu egiten da.

Lege marko bat baldin badago eta zuek hori aplikatu besterik ez baduzue egiten, zeri heldu dio estatuak kontra egiteko?

Berriz hasierara noa. Orain arte ez zen aplikatu, beraz ez du arazorik eman. Jaurlaritzak ere esan zuen araua 2006tik zegoela, bai baina ez du inoiz aplikatu, beraz ez du arazorik eman. Aldundian 2009tik dago. 2010ean kontratuen %40an ezartzen ziren hizkuntza irizpideak, gaur egun kontratuen %93an. Orain araudien talka sortu da aplikatu egin delako. Araudien talka zer da? Nahi baduzu, guk ere bistarazi dugun arazo bat dago: euskararen ofizialtasuna benetan zenbaterainokoa den.

Zein daude talkan?

Estatuak dio kontratazioetan eskumen esklusiboa duela eta guk



“Legealdi honetan, sartu ginenetik, horixe esan izan dugu: euskararen erabilera arautzeko legeak egon badaudela, baina ez direla aplikatzen sarri askotan”.

hemen daukaguna euskararen ofizialtasuna da. Indar politikoa dagoela ere argi dago. Kontratazioetan eskumen eskusiboa beraiek eduki arren, euskararen ofizialtasunarekin konbinatu beharko lukete. Azken finean, euskara “Espainiako” hizkuntza ofizialetako bat da.

Eusko Jaurlaritzari babesa eskatu diozue.

Askotan eskatu ostean, HAKOBA-ren [Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea] bilerara deitu zuen. Udalen beharrei erantzuteko eskatu zitzaion, izan zedila nolabait estatuaren aurrean defentsa egingo zuena. Apirilaren 8ko Euskararen Aholku Batzordean eskatu zuen Foru Aldundiak lantalde juridikoa lanean jartzea, eta oraindik ez dugu berririk jaso.

HAKOBA berriz batzartzeko eskaria egin dugu UEMAk eta Foru Aldundiak, bakoitzak bere aldetik. Berriz eskatuko dugu lantaldea osatzea eta udalei aholkularitza eskaintzea. HAKOBAren bilera uztailearen 30ean izango da. Jaurlaritza erabat gelditi dago.

Ahoz babesa eman zien Aldundiari eta udalei.

Bai, baina praktikan ez da ezertan gauzatzen. Are gehiago, estatua kontratazioetako hizkuntza irizpideak salatzen hasi zen eta gero dirulaguntzetako hizkuntza irizpideak salatu ditu. Beste ildo bat ere abiatu du: informazioa euskara hutsez bidaltzen duten udalei berari elebitan bidaltzea exijitzen hasi da.

Hiru fronte ditu irekita.

Bai, hiru, eta Jaurlaritzak badaki.

Aholkularitza juridikoa eskatu diozue.

Euskararen Aholku Batzordean badago lantalde juridikoa, baina bertako kide batek esan zidan beraien lanaz gain, Jaurlaritzako ekipo juridikoek beraien txosten juridikoak prestatu behar lituzketela eta martxan jarri.

Jaurlaritzak, nolabait esateko, udalak bakoitza bere defentsa antolatzen utzi ditu eta ez zaigu iruditzen udal batzuen arazoa denik. Euskararen Legea, ofizialtasuna aplikatzen datozen oztopoak dira. Gainera, ez gara joan Euskararen Legetik harago. Tolosako Udalak edo Beizamakoak defendatu behar du euskararen ofizialtasuna epaitegietan? Ala ardura hori daukan erakundeari dagokio hori egitea? Normalizazioaren eskumena Jaurlaritzarena da.

Enpresek nola erantzun diote kontratazioetarako irizpideak gauzatzeari?

Ez da egon kezka negatiborik; kontrakoa, jasotzen ari garen mezu guztiak positiboak dira. Enpresa askok euskararen aholkularitza enpresetara jo dute euskara planen berri jasotzeko, baita euskaltegietara informazio bila ere. Datu objektiboak daude: Azken bi urteetan Bikain ziurtagiriak bikoiztu egin dira Gipuzkoan; 2013an, Bai Euskarari ziurtagiriak 40 eragile berri batu ditu Gipuzkoan.



“Langile berriak euskaldunak izango direla bermatu behar da eta sistematikoki ari gara hori egiten”.

Urte berean, Gipuzkoako euskaltegietan 500 ikasle berrik eman dute izena. Zeharkakoagoa da azken ondorioa, euskara ikasteko dirulaguntzek gora egin baitzuten, baina badakigu Bizkaian eta Araban Jaurlaritzaren beka egon arren euskara ikasleak galdu egin direla.

Herritarrei galdetu diezue ea Aldundiarekin harremana euskaraz nahi duten. Ogasunarekin adibidez. Zein izan da emaitza?

Legealdiko frustraziorik handiena izan da, teknikoki. Herritarren hizkuntza hautua errespetatu behar dugula argi daukagu eta horretarako haien hautua ezagutu behar dugu. Hori egiteko modua bilatu behar genuen. 2012ko errenta kanpainan galdetu zitzaizen herritarrei hizkuntza hautuaz. Zer gertatu zitzaigun? Ogasunak galdetu zuela, eta gainerako departamenduek ezin dugula erabili informazio hori, herritarrek baimen zehatza ematen ez badigute. Bigarren galdera egin behar izan genuen, ea baimena ematen zigun datu hori gainerako sailei helarazteko. Horrek zeharo hondatu zuen urratsa.

Zergatik?

Ogasunari 50.000 pertsonak esan zioten euskara hutsez nahi zutela harremana, baina bigarren galderari ez zioten berdin erantzun, jendea kikildu egin zen. Zuzendu ahal izateko lanean dihardugu, baina ez da berehala etorriko. Teknikoki konplikatu da. Aldundiak berak galdetu beharko lieke herritar guztiei eta eskuratutako informazioa sail guztiarekin egiaztatu beharko luke.

“Erritmoa ez du norberaren gogoak markatu behar, baizik eta herritarrari zor zaion helburuak. Euskararen normalizazioak, administrazioan, ezin du joan borondatearen bidetik”

Oraingoz beraz, herritarrek Ogasun Sailari emandako erantzuna daukatzue.

Oso ondo atera da. Bikoiztu egin da euskara hutsezko harremana nahi duten herritarren kopurua [50.000]. Dena dela, errenta aitortpena 400.000 herritar inguruk egiten du. Oraindik urruti gabiltza.

Zuk diozu administrazioaren jarrerak eredu izan behar duela.

Mezu kontraesankorrak ematen ditugu bestela. Inkesta soziolinguistikoa eta mapa soziolinguistikoa argitaratu dira aurtun eta esaten da euskal autonomia erkidegoa geroztik euskaldunagoa dela. Erabilera neurri berean ez doala ere esaten da, eta herritarrari leporatzen zaio ez erabiltzea. Zer eta administrazioak ez duenean bere burua euskalduntzen gizartea euskalduntzen ari den erritmo berean. Administrazioa behartuta dago euskara erabiltzera eta ez du erabiltzen. Beraz, herritarren subkontzientean dago administrazioak ez duela euskaraz funtzionatzen, gizarteak ez duela euskaraz funtzionatzen. Normala hori da, anormala euskaraz funtzionatzea da. Hori puskatu egin behar da. Administrazioak eredu garri izan behar du, hasteko legez hala dago kirolako, eta gainera erreferente sozial garrantzitsuenetakoa delako. Tiratzailea da, traktorea da, bere atzetik daramatza enpresak, norbanakoak, erakundeak... inplikazio handiak ditu administrazioak euskalduntzean.

Legealdia bukatzerako zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko zenituztela esan zenuten. Noraino heldu zarete?

Beste gauzen artean, araudia aplikatu dugu, eta berriro diot, pellokeria ematen du baina aplikatu egin behar da. Jendaurreko lanpostuen zerrenda egin da eta lehen mailako eta bigarren mailako harrera zehaztu da. Zeren askotan gai hau mostadorera mugatu izan da edo erakundeetako sarreretan egoten diren langileetara. Herritarrek zerbitzua solairu guztietan hartzen dute. Ikuspegia orokortu egin behar da, herritarrekin harremana duten langile guztiek izan behar dute euskaldunak.

Jendaurreko lanpostuen mapa egiteaz gainera, jendea lanpostuetatik mugitu dugu; gaituta ez dagoen langileak ezin du egon jendaurrean. Eta mugitzerik izan bada, beti ezin izan da, batzuetan ordezkatu egin dira. Horrekin batera, trebakuntza berezitua egin da. Ez dugu langilea bakarrik utzi. Adibidez, Segurako aterpetxean sukaldarriekin eta sukaldean ari diren langileekin trebakuntza saio berezitua antolatu da, ez euskalduntzeko, baizik eta han ibiltzen diren gazteekin jarduera zehatz horretan euskaraz egiteko.

Eta gero langile berrien arloa dago. Gaur egun ezin dira deialdi publikoak egin, baina langileak hartu daitezke. Langileok euskaldunak izango direla bermatu behar da eta sistematikoki ari gara hori egiten. Hizkuntza eskakizunak ezarri dira. Herritarrentzat alde positiboak ditu jakina, baina alde negatiboak ere baditu. Gaituta ez dagoena eta lan poltsan egon dena orain kanpoan geratu da. 2012ko errenta kanpainarako, 80 laguneko taldeari EGA edo Hirugarren Hizkuntza Eskakizuna eduki beharra ezarri zitzaion. Ordura arte lan horretan aritu zen langile taldeak epaitegietan salatu zuen. Epaitegiek arrazoia eman digute.

Euste-horma jarri behar da, ezin dute sartu bere lanerako hizkuntza gaitasunik ez daukatenak. Ezin da utzi gerorako, lanean hasi eta gero euskara maila lortzekotan.

Zer dago egiteko?

Langileen hiru laurdenak badauka bere lanposturako hizkuntza eskakizuna. Beste batzuk salbuetsita daude edo lanpostua ez dago beteta. Alde horretatik oso posizio onean gaude, baina badaude zailtasunak dituzten sailak: adinean gora doazen langileak daude taldeetan, eta beraz, badira sail batzuk beste batzuk baino erdaldunagoak. Haiek jubilatuta arte itxaron beharko da.

Zailena Gizarte Politika Saila izango da. Kanpoko enpresek zerbitzuak eskaintzen dituzte, adibidez, zaharren egoitzek. Langile asko dira. Egun batetik bestera ezin ditugu euskaldundu. Hizkuntza iriz-

pideak ezarri ditugu kontratazioetan, baina aldaketa ez da egun batek bestera lortuko. Bestalde, Foru Aldundiak udalek gestionatzen dituzten eguneko zentroak bere gain hartzeko konpromisoa hartu du. Zentroak hartzen dituen momentuan langileak ere hartu beharko ditu.

Beraz, aurreratu dezaket ez garela helduko inolaz ere jarritako helburura. Kontziente ginen hartzen genuen epea estuegia zela, baina beharrezkoa ikusten genuen epea jartzea gure burua behartze-

“Tolosako Udalak edo Beizamakoak defendatu behar du euskararen ofizialtasuna epaitegietan? Ala ardura hori daukan erakundeari dagokio hori egitea? Normalizazioaren eskumena Jaurlaritzarena da”

ko. Erritmoa ez du norberaren erosotasunak edo gogoak markatu behar, baizik eta herritarrari zor zaion helburuak. Euskararen normalizazioak, administrazioan, ezin du joan borondatearen bidetik, horretan oso kritikoak gara Jaurlaritzarekin.

UEMArekin hitzarmena egina duzue. Euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan lehentasunezko trataera eman behar zaiela diozue. Zergatik behar dute lehentasunezko trataera? Kezkatzeko zerbait ari al da gertatzen?

Bai. V. Mapa Soziolinguistikoak eta V. Inkesta Soziolinguistikoak erakutsi dute erdalduntzen ari direla euskararen arnaguneak. Kezkatzekoa da. Legealdiko lehenengo hitzarmen publikoa huraxe izan zen, UEMArekin eta Kontseiluarekin egin genuena, arnaguneen eremuan lan egiteko, haiek zaintzeko eta babesteko intentzioz. Arnasgu-

neak euskararen sostengua dira, herri horietan, esparru horietan dago euskara osasuntsuen. Eredu dira. Beraz, funtsezkoa da horiek beren ezaugarriari eustea. Gure lehenengo asmoa, horretan ere euste-horma ezartzea izan da, ez kaltetu dagoena, zaindu, ez eragin atzerapausorik egungo egoeran. Are gehiago, hobetu, hedatu eta indartu.

Euskararen normalizazioarako zenbateko diru-zakua beharko luke Diputazioak, iritsi nahi duen tokira heltzeko?

Erantzungo diot galderari, baina utzidazu lehenagoko kontu bat aipatzen. Neure buruari eta neure kideei ere esaten diet, ez da airera botatzen dudana kontu bat: euskararen aurrekontuetan dauden gaiak ordenatu egin behar dira behingoz. Gaur egun, oraindik ere, oro har administrazioetan, kulturakoak diren gauza gehiegi ditugu euskararen normalizazioarako aurrekontuetan. Ezin dugu jarraitu gure aurrekontuetan kontuan hartzen literaturaren sustapena, bertsozale-tasuna... eta beste (eta ez naiz inoren kontra ari). Jakina euskararen normalizazioan zeresana daukatela, baina kultura kultura da. Kulturen egon behar liratekeen hainbat gauza liberatzen baditugu gure aurrekontutik, beste puskatxo polit bat edukiko genuke.

Egia da euskarari %2 eman behar zaiola aldarrikatzen ari garela. Nik ez dakit %2 izan behar duen. Lehenengo ordenatu egin behar dugu, eta gero %1, 1,5 edo 2 izan behar duen adostuko dugu. Gaur egun 0,8an gaude. Argi daukat diru gehiago behar dugula eta gure gobernari eskatu diot ahalegin hori egin dezala.

Gehiago zenbat da?

Gure aurrekontuan beste milioi bat ederki sartuko litzateke. Zer esanik ez bi milioi, baina errealista izanda, uste dut gure aurrekontuak beste milioi bat behar duela. Era berean, kultur eremuaz esandakoa, gutxienez milioi erdi euro ez dago egon beharko lukeen tokian. ■



Baliabide naturalak ustiatzeko egitasmoa Otxandion

Ura urrunetik ekarri baino, otxandiarrek nahiago dute bertako errekek garbi mantendu eta modu autonomoz euren beharren arabera ustiatu. Herri Ola izeneko egitura parte hartzailean hainbat proiektu landu dituzte energia burujabetza, lana eta iraunkortasuna ardatz hartuta.

| MARTIN VICIOSO |

HERRI OLA parte-hartze prozesuaren ondorioz, oinarrizko beharrak asetzeko modu iraunkorragoen bila hasi ziren otxandiarrek, Udalak sustatuta. Pello Otxandiano udal ordezkariak azaldu duenez, lau ardatz jorratu dituzte: iraunkortasuna, parte-hartzea, euskalgintza eta elkar-tasuna.

Hainbat proiektu mahai gaineratu dituzte, horietako bat uraren hornikuntzaz. Inguruko herri guztiak eta kasik Bizkaia osoa hartzen duen Bilboko Uren Partzuergoan ez sartzea

erabaki zuten herriko kontseiluan. Izan ere, ez daude ados ura bezalako baliabide natural eta beharrezkoa “etekin ekonomikoen arabera” kudeatzearekin. Esaterako, 2011 eta 2015 bitartean partzuergoak uraren tasak %40 igoko ditu Europak aginduta. Otxandianok dioenez, Otxandion dituzten baliabideekin gai dira herrirako ura biltzeko.

Aurkeztutako proiektu estrategikoak, dena den, hornikuntza hutsetik haratago doaz, eta inguruko erreken ekosistemak berreskuratu nahi dituz-

te. Horretarako, besteak beste, ur kontsumoa murriztu eta ur zikinari beste tratamendu bat eman behar zaiola ondorioztatu dute. Arazketa planta jasangarria eraikitzeko helburua dute, baina azaldu dutenez, diru laguntza ukatu zaie Bilboko Uretatik at izateagatik.

Negu hotzari aurre egin

Gorbeiaiko eta Anbotoko mendi-zerren artean dago Otxandio. Alboan duen Ubiderekin batera Bizkaiko herri garaiena da, 560



EITB.EUS

Ura eta biomasa, Otxandiok badu nahikoa baliabide energia burujabetzarantz egiteko. Irudian, Presazelai ingurua.

Otxandioko erradiografia

Biztanleak: 1.292

Sektorekako ustiapenak: Nekazaritza eta abeltzaintza (%0,6), industria (%35,5), eraikuntza (%14,4) eta zerbitzuak (%49,4).

Industria tasa: Diru sarreren %65.

Langabezia tasa: %8,9.

Azalera: 12,43 kilometro koadro.

Artifizialdutako lur eremua: %20,95.

Udalaren osaera: Bilduk 7 zinegotzi, EAJk 2 zinegotzi.

Euskararen ezagutza tasa: %75,47.

Euskararen erabilera: %48,65.

Iturriak: Gaindegia, Eustat, Otxandioko Udala.



Natur ondareak turismoa erakarri du Otxandiora, baina energia oreka ere lortu nahi dute bertako baliabideekin.

metrora baitago. Hori dela eta, neguak bereziki hotzak izaten dira bertan. Herriaren izenak berak klimatologiari egiten dio erreferentzia teoria batzuen arabera. Antza, Otxandio, "hotz handi"-ren eratorria izan liteke.

Neguak oso hotzak direla eta, berokuntza sistema eraginkorra eta ekonomikoa behar dute. Azken urteetan eman diren fakturen gorakadak herritarrak kezkatu ditu, eta arlo horretan ere alternatibak bila hasi dira. Lehenik eta behin, etxebizitzak lotuko dituen berokuntza sarearen azterketa eta zenbait energia berriztagarri alderatu zituzten. Biometanizazioa eta biomasa identifikatu dituzte etorkizuneko berokuntza sistema horren energia hornigai gisa. Hau da, hondakin organikoa bero iturri bilakatu nahi dute. Beraz, zaborraren bilketa egokiarekin eta kudeaketarekin zuzenean lotutako arloa da.

Durangalde osoan bezala, industriaren eta zerbitzuen sektoretan aritzen dira otxandiar gehienak. Burdinaren ustiapena herriko motor ekonomikoa izatera ailegatu zen, XIX. mendean teknologia berrien agerpenarekin gainbehera etorri zen arte. XX. mendeko bigarren erditik aurrera, industria metalurgikoak

Arazketa planta jasangarria eraiki nahi du Udalak, baina diru laguntzarik ez du, Bilboko Uren Partzuergotik at dagoelako

hartu zuen indarra. Urkiolako eta Gorbeiaiko paraje ederrak ondoan edukitzeak turismoa bultzatu du, gehienbat mendiko kirolekin eta landa-etxeekin lotutakoa. Nekazaritzarako gune egokia den arren, lehen sektoreko jarduera batez ere autohornikuntzan oinarritzen da.

Herri Ola prozesuan, etxebizitza eta lanaren arazoei aurre egiteko bilerak egin dituzte. Hala ere, Otxandianok onartu du proposamen zehatzak garatu gabe daudela. Udal ordezkariak azpimarratu du krisiaren ondorioz pertsona asko egoera prekarioan dagoela eta zerbait egiteko beharrean direla. Gaia korapilatsua da baina. Udalek esku hartze gaitasun txikia dute gai horietan, eta ez da sinplea marko orokorra aldatu gabe erantzunak ematea.

Etxebizitzari dagokionez, eredu juridikoak aztertzen ari dira esaterako. Erronkak asko dira. Orain arte landu diren proiektuak aurrera eramateaz gain, berriak proposatu beharko dituzte. Herritarren parte-hartze aktiboa kultura politikoaren aldaketa behar du. Norabidea behintzat finkatuta dute, eta ez da gutxi. ■



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

«Gazte ausartak baino ez ginen izan, egoera sozial baten espoleta»

(Altzola-Elgoibar, 1933). 1958an apaiztu zen. 1968an klandestinitatera pasa zen, ETako kide liberatua bihurtuz. Mogrovejon atxilotu zuten. Burgosko prozesuan epaitua beste hamabost kiderekin. Zamorako Konkordatu kartzelan zazpi urte eman zituen. 1977an libre geratu zen.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

INTXORTA 1937 Kultur Elkartearen eskutik kaleratu du *Zamorako landan* liburua. Berak dioenez, 1977ko sasi-amnistiarekin geratu zen aske. Euskara irakasle aritu zen Eskola Publikoan jubilatuta arte. Iaz, Etxarri Aranatzeko hemeretzi urte bizi ostean, Eibarrera itzuli zen Maria Luisa Ruiz Arana bikotearekin.

Nola gogoratzen dituzu Altzola auzoa eta haurtzaroa?

Umetako herria, txikia. Auzo txikiak duten alderdi on eta txarrekin. Herri handietan egoten diren gauza asko falta zen, baina elkarren ezagutza handia zegoen, elkartasuna. Bai-nuetxera jende asko etortzen zen, erdaldun asko ere bazebilen, beraz.

Zure aitak Altzolako Batzokiaren inaugurazio egunean ikurrina jarri ei zuen, 1936ko gerra aurretik. Gero frontera joan behar izan zuen aitak.

Hori da uste duguna. Nik gero jakin nuen, anaiak kontatua, artean, hiru urte bainitu. Anaiari herriko batek esan zion: "Hire aitak jarri zuen ikurrina". Aita *naționalak* herrira heldu eta gerra-frontera joan zen, ihesi. Bera eta beste batzuk, jeltzaleak. Geratu zirenetako bat hil zuten bertan, beste bat erietxera eramane eta beste bat herri-

"Ni pistola hartuta ibili nintzela Francoren aurka? Kontraesana dela? Baliteke. Baina Elizaren praktika hori izan da beti".



ko “jauntxo” batek libratu omen zuen bere alde egina zuelako. Herri-tar asko fusilatu zuten Altzolan.

Gerra ostean, frankismoaren Eskola Nazionala ikasiko zenuen?

Bai. Guk *Cara al Sol* ez genuen abesten, baina fusilak genituen, egurrezkoak, eta patioan desfila-tzen genuen. Neguan “*Señorita hace frío*” esaten genuen, eta hark “*desfilen, pin, pan, pin, pan*”. [Espainiako] bandera jartzen genuen egunero eskolako balkoian. Haurrak ginen eta gustura ibiltzen ginen, borrokan. Hura jolasa zen guretzat. Ez genuen gerran gertatu zenaren kontzientziarik.

Aita langilea zen. Ikasia, hala ere.

Bai, aita ipuinak euskaraz kontatzen zizkigun. Gaitasun handia zuen, haren ipuinak naturaltasunez hartzen genituen. Gaur egun harri-tuta gogoratzen dut, irakurtzeko erraztasun izugarria zeukan. Aita gipuzkeraz eta bizkaieraz entzuten genuen, biak nahasiak erabili ohi zituen. Mendaro, Altzola eta Elgoibarreko muga-euskara. Altzolako euskara holakoa da. Gero, gazte-tan, oso lagungarria izan nuen, bi aldeetan lagunak erraz egiten nituen.

Hamahiru urterekin seminariora joan zinen. Saturrararen, Gasteiz eta Donostiako seminarioak ezagutu zenituen. Zergatik joan zinen?

Amarengatik, ama bihotzekoa. Zaldibarkoa zen, euskaltzalea bera ere. Bost anai-arreba ginen, hiru mutil eta bi neska, ni hirugarrena. Ni apaizgai izan baino lehenago anaia zaharragoa izan zen, hark utzi eta amak “zergatik ez zoaz zu?”, esan zidan. Saturrarango garaia ez dut ia gogoratzen. Gero, lagunekin hitz eginda, diziplina handia zegoe-la gogoratu dugu. Ezin genuen binaka ibili, hirunaka baino ez. Ez zuten biren arteko laguntasunik onartzen: “*Nunca dos, a lo menos tres*” esaten ziguten. Bi ikusiz gero, zigorra. Nota jaisten ziguten. Gasteizera 17 urterekin joan nintzen, mutil eginda. Filosofia eta humanitateak ikasi nituen, gero, Donostian, filo-sofiako azken urtea eta teologia lau urtez.

Eta gero apaiza izan zinen.

Lourdesen apaiztu nintzen, urte berezia izan zen, hango basilika egin berria zen, horregatik edo.

Ordurako, Euskadi zenaren ideia- ren bat izango zenuen, ezta?

Bai. 18-20 urte inguru nituela, Jose Antonio Agirre lehendakariaren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* liburua aurkitu nion aitari. Kuriositate handiz irakurri nuen. Ez nuen abertzaletasunaren ezagu- pen handirik eta asko lagundu zidan. Euskal Herriaren problema- tikari buruzko lehenengo hausnar- keta serioak egin nituen. Liburuare- kin batera aita bazeukan lauburu txiki bat, ezkutuan, zilarrezkoa.

1954an Francok seminarioa inau- gu-ratu zuen Donostian. Zu bertan zinen. Zein zen orduko giroa?


Seminaristen artean, nolabait, baze- goen euskal sentimendu nazionalis- ta. Baina, kalean ez zen hori suma- tzen. Franco eszenatoki gainean gogoratzen dut, sermoi antzeko hitzaldia bota zuen, militarrez ingu- raturik. Pasilloan pasa zen eta “*Viva el Papa*” zioten inguruan. Roman Orbek, falangista eta gure teologia irakaslea, Francoren aldekoa zela esaten zigun harro. Lehen aldiz, haren kontrako jarrera moduko bat zegoe-la jabetu nintzen. Baina giroa ez zen politikoa, ez genuen politi- kaz hitz egiten. Etxetik kanpo, erre- gimenaren aurkako nire lehen senti- pen abertzaleak izan nituen orduan.

25 urterekin, Marin auzora apaiz joan zinen, Eskoriatzara.

Gaztetxoak ginen, eskarmentu gutxi genuen, baina esperientzia polita izan zen. Ikasleak gaztetxoak ziren eta abertzaletasuna modu naturalean berpiztu zen herrian. Antzerkia eta kantua lantzen geni- tuen, nire kasa antolatuta. Meza lati- nez ematen nuen, eta dotrina eta kankak euskaraz. Denbora bat egin eta apaiza herriz aldatzeko joera izaten zen apezpikutegian. Beste leku batzuetara joateko proposa- tzen zidaten, eta ezetz esaten nuen. 1963an, Eibarreko Azitain auzora joatea onartu nuen, ez nuen ezetz esaterik. Esperientziak aberasga- rriak izan ziren, baina orain ohar-

Zamorako kartzela ipuinetan

APAIZ NINTZENEAN motorrez ibiltzen nintzen, eta gero kotxez ere bai. Garai hartan ez zen ohikoa. Liburuaren azala Jose Martin Urrutiak egin du (*Txotxe*), nire lagun minak. Kartzelako leihoa, motorra eta ihesa irudikatu ditu. Motorrez bizkor ibili ohi nintzen. Zamo- rako kartzelan zuloa egin genuen, baina halako batean txibatazooa izan zen eta ihesa zapuztu ziguten. Imajinazioa eta psikologia izugarri lantzen genituen. Zuloa aurkitu eta esan zidaten: “Ingeniaria ikas- ketak egin al dituzu?”. Batzuek zuloa egin bitartean, beste- tzuek kartzelariak engainatzen zituzten. Xabier Amuriza lagu- nak bultzatu ninduen *Zamorako Landan* liburua idaztera. Ez nuen aparteko gogorik. Banuen ipuin bat idatzia, eta sari bat irabazia ere. Tunela nola egin genuen kontatzen duena. Xabierrek “segi, gehia- go kontatu behar duzu” esan zidan. Eta hara, narrazio gehia- go idatzi dut liburua egin arte. Xabierrena bultzada baino gehiago izan da, aholkuak eman dizkit. Bera eta bertan izan ginen guztiak gogoan ditut. Nikola Telleriarekin oroi- tzen naiz sarritan. Orain harri- tzen naiz, orduan ez nintzen jabetzen. 60 urterekin sartu baitzen borrokan. Preso politi- koa, apaiza, langilea, euskaltza- lea. Kartzelako bizi latza jasan zuen Nikola lagunak. Preso sartu berria gaixotu zen. Zein gaizki tratatu zuten! Erraz ahazten zaizkigu presoak.





“Aitak ipuinak euskaraz kontatzen zizkigun. Erraztasun handia zuen eta naturaltasunez hartzen genituen”

ezagutzen. ETako zuzendaritza Maria Luisaren etxean egoten zen aldian-aldian.

Txabi Etxebarrieta ere ezagutuko zenuen.

Bai. Behin baino gehiagotan eraman nuen kotxez. Nik inpresio ezkor samarra nuen Txabiri buruz. Ezta-baida politikoa oso berritsua zen, bilbotar itxura hartzen nion. Gero jakin nuen nor zen. Zenbaterainoko zen ideologia eta pentsalaria...

Geroago, 1968an, Txabi Etxebarrieta Tolosako Benta Aundin hil zuten.

Garai gogorra izan zen guretzat. Iñaki Sarasketa txakurren eskuetan erori zen eta izenak kantatuko ote zituen beldur, Maria Luisa eta biok Bartzelonara joan ginen. Egun batzuk pasa ondoren, Eibarren mugimendurik ez zegoela jakin ostean, itzuli ginen.

Handik gutxira ETak Meliton Manzanas hil zuen. Txabi Etxebarrietaren hilketak Manzanas hiltzeko pausoa ematen “lagundu” zuela esan dute historialariek. Iritzi berekoa al zara?

Beharbada. Ez dakit Txabiren hilketak eragin ote zuen. Nik uste, Manzanas hiltzea erabakita zegoela lehenagotik ere.

Apaiza izanda, nola hartu zenuen Manzanas hiltzea?

Izugarri gogorra izan zen niretzat eta denontzat. Lehenengo atrakoak bezala. ETA dirua bankuetan lapurtzen hasi zenean, jendea kosta egiten zitzaion onartzea. Agian, Manzanas hiltzea onartzea errazago izan zen dirua lapurtzea baino. Beste hilketak etorri zirenean are zailagoa izan zen onartzea, noski. Ni ordurako kartzelan nintzen.

Artean ETAn sartua zinen jada.

Txabi hil eta gero ere laguntzaile nintzen, legala, ez nintzen ETako

“Agian, Manzanas hiltzea onartzea errazago izan zen ETak dirua lapurtzea baino”.

tzen naiz, jaun eta jabe nintzela herrian. Apaiza gauza izugarria zen. Mukizu bezala gogoratzen dut nire burua, eta herriko nagusietako bat.

ETAn berriz nola sartu zinen?

Neurez ez nintzen ETAn sartu. Lagun bat nuen [egungo bikotea, Maria Luisa], hark eskatu zidan ea lagun talde bat leku batetik bestera eramango ote nuen. ETako kideak zirela esan zidan. Eibarretik Arrasatera eramateko, baita eraman ere.

Seat 600 bat neukan. Kotxe hura orduko rifa batean tokatu zitzaidan.

Haiek armatuak ibiliko ziren, noski.

Bai, haietako batek —gauzak agerian uzteko edo— pistola atera eta halako erakustaldia egin zuen. Ez zidan inpresiorik egin.

Nor ziren esaterik, bai?

Jokin Gorostidi, Javier Larena, Unai Dorronsoro eta Teo Uriarte. *Pottolo, Mudito...* Ezizenak baino ez nituen

kide. Bartzelonatik itzuli ostean, txakurrak atzetik neuzkala ohar-tu nintzen. Maria Luisa klandestinitatera pasa zen, eta orduan, esan zidaten ea nahi nuen ETAn sartu. Baietz esan nuen, baina erabakia hartzea oso zaila eta gogorra izan zen.

Nolakoa da horrelako unea?

ETAn sartu eta hainbat urtetara lagun batek esan zidan: “Ni ere berdin sar nintekeen ETAn”. Alegia, neurri batean zirkuntantzien arabera gertatzen zen eta niri gertatu zitzaidan.

Nor zen laguna? Bizi al da?

Bai, baina ez dizut haren izena esango.

Apaiz bat talde armatu bateko kidea. Apezpikuak zer pentsatuko zuen?

Ez dakit... Elizan eskandalizatu-ko ziren, noski. Klandestinitatean sartu eta nire gogoeta hauxe izan zen: “Elizaren dotrinaren arabera apaiz bat talde armatu batean sartzea kristoren kontraesana da. Baina herri honetako naiz eta aukera hau egin dut. Eliza ofizialari begira jarri, eta kristau bezala, pentsatu nuen: Elizak beti hartu ditu armak. Erromako enperadore Konstantinok izugarriko borrokak izan zituen bere buruarekin, biolentzia erabiltzeko unean. Gurutze bat agertu omen zitzaion. Bada, niri ere halako zerbait. Kristauak talde armatuetan antolatutako ziren eta harremanetan zeuden Konstantinorekin. Hura gerra galtzeko zorian egon zen, eta kristauak haren alde egin zuten. Erdi Aroan ere Elizan borroka izugarriak izan ziren, armatuak. Adibidez, Nafarroa inbaditzeko baimena eman zuen Elizak.

Gure herriaren historia...

Bai. Eliza historian inplikatu izan da biolentzian. 1936ko Altxamendu Nazionala bedekatu zuen. Non babestu ziren Nafarroako erreketak? Elizak Altxamendua antolatzeko lekuak izan ziren. Gerra bedekatu eta gotzain gehienak Francoren alde

jarri ziren. Orduan, halako eskandalua apaiz batzuk pistolaz ibili zirelako frankisten aurka? Ni pistola hartuta ibili nintzela Francoren aurka? Talde armatu batean? Kontraesana dela? Baliteke. Baina elizaren praktika hori izan da, nirea ere horren barruan ulertu behar da. Nirea eta beste askorena.

Mogrovejon harrapatu zintuzten, Santanderren, ETAko zuzendaritzaekin. Torturatua izan zinen.

Izugarri gogor gainera: “*Tu no eres cura. El obispo está contra tí*” entzun nituen hasteko. Donostiara eraman ninduten eta obispoak *Unidad* egunkariaren lehen orrialdean zioena irakurri zidaten. Gero jakingo nuenez, gotzainak gezurtatu zuen egunkariak idatzitakoa. Jacinto Argaia zen gotzaina eta defendatu ninduen. Francoren aldekoa zen, noski, baina rol berezia jokatu zuen Burgosko prozesuan.

Konta ezaguzu nola bizi izan zenuen Burgosko prozesua.

Guk prozesua politizatu nahi genuen. Epaietari buelta eman, hura salatu, frankismoa epaitu nolabait. Gaurtik begiratuta harrigarria ematen du, baina historian izaten dira une batzuk... —zaila da azaltzen zergatik eta zerk eraginda— zeinetan herria altxatzen den. Jendea kokotaraino zegoen frankismoaz, urte pila zeraman diktadurapean. Jendea kalean zegoen, Euskal Herrian eta Espainian ere. Burgosko prozesua zela eta, munduko apaizak mugitu ziren gure alde. Maria Luisak kontatua ondo dakit hori, bera Parisen zegoen. Gu gazte ausart batzuk baino ez ginen izan, egoera sozial baten espoleta izan ginen nolabait.

Epaiaketa nolakoa izan zen?

Oso ongi prestatu genuen. Epaiak hitz egiten hasten zirenean moztu egiten genituen. Nire egitekoa eliza “ukitzea” izan zen. Apaiza bezala agertu nahi nuen: talde armatuko kidea nintzela, pistola eraman nuela. Apaizen

VITORIA
GASTEIZ
green capital



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK

Peñaflorida kondearen plaza, 12:30

- 3, 2 zast egizu jolas!
- Abuztuak 6
- Sardina Freskue
- Abuztuak 7

MUSIKA IKUSKIZUNAK

- Izerdi gorria
- Abuztuak 4, 01:00, Txosnak
- Esne beltza
- Abuztuak 6, 02:00, Txosnak
- Anne Etchegoyen & Aizkoa abesbatza
- Abuztuak 5, 00:00, Aihotz plaza
- Hesian
- Abuztuak 6, 00:00, Aihotz plaza
- Zea Mays
- Abuztuak 7, 00:00, Aihotz plaza
- Eskean Kristö
- Abuztuak 7, 03:30, Txosnak
- Betagarri
- Abuztuak 8, 00:00, Foru plaza
- Txuma Murugarren & Angel Unzu
- Abuztuak 8, 00:00, Aihotz plaza
- McOnak
- Abuztuak 8, 00:00, Txosnak
- Ze Esateki!
- Abuztuak 8, 02:00, Txosnak

GAU JAIK

- Lisker
- Abuztuak 4, 00:00. Arka plaza
- Drindots
- Abuztuak 5, 00:00. Arka plaza
- Joselu anaiak
- Abuztuak 6, 00:00. Arka plaza

BERTSO SAIOAK

- Aihotz plaza, 13:30
- Abuztuak 5
- Amets Arzallus eta Andoni Egaña
- Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea
- Abuztuak 6
- Irati Anda, Odei Barroso,
- Jagoba Apaolaza eta Jon Maia
- Gai-jartzailea: Olatz Santocildes
- Abuztuak 7
- Oihane Perea, Etxahun Lekue,
- Ander Solozabal eta Unai Iturriaga
- Gai-jartzailea: Maialen Kortabarria
- Abuztuak 8
- Felipe Zelaieta, Iratxe Ibarra,
- Iñaki Viñaspre eta Beñat Gaztelumendi
- Gai-jartzailea: Beñat Garaio
- Abuztuak 9
- Xabi Igoa, Ruben Sanchez,
- Maialen Lujanbio eta Eneko Fernández
- Gai-jartzailea: Idoia Beitia

ANDRE MARIA ZURIAREN JAETAN
ERE EUSKARAZ!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udaia

«Presoen indarrarekin harrituta nago»

ETXARRI ARANATZ [Nafarroa Garaia] herrian lagun asko egin genituen Maria Luisa lagunak eta biok. Presoen mundua hurbiletik segitu dugu, presoen familiarenak bereziki. Presoek atxiki duten indarrarekin harrituta nago. Askok arazo psikologikoak omen dituzte. Nola ez dauden erabat jota eta deuseztatuak pentsatzen dut nik. Batzuek 30 urte barruan egin dute. Bakarka, isolatuak, talde txikietan. Nondik atera dute indarra? Kanpoko berrien bonbardaketa jasaten dute. Hedabideetatik zabaltzen diren berrien nahasketa izugarria da. Informazioa partzialki eta modu txarrean iristen zaie. Taxuz eztabaidatzeko aukerarik ez dute izan. Baldintza horietan, horrenbeste urte preso pasa ostean –gure garaian hamar urte izugarria zen– horrela ateratzea. Denetarik dago jakina, denak ez daude osasunez ondo, baina nik asko gogotsu ikusi dut.



artean eztabaida hori eragin nahi genuen. Ez zidaten utzi noski, baina apaizaz jantzita agertzea lortu nuen. Apaizen txaketa moduko bat eram nuen eta lepoko xafila zuria poltsikoan, epailearen aurrean jarri nuen. Ez neukan apaiz jarraitzeko asmorik, baina eztabaida bilatu nuen. Arma bai edo ez? Ez genuen eztabaidatzea lortu, noski, baina polita izan zen. Ramón Camiña nire abokatuak, EAJkoa, galdetu zidan une batez: “*Usted reconocería su pistola?*”. Altxatu nintzen eskuz seinaltatzea eta denak mugitu ziren aretoan. Izugarritzko tentsioa zegoen, eta gu gustura.

Gero ETA zatitu zen: ETA V eta ETA VI. Zuk VI.aren alde egin zenuen.

Hori izan zen nire lehenengo eztabaida teoriko garrantzitsua. Ordura arte ez zen eztabaida politiko sakinik egin. Batzuek gure izenean eztabaidatu bai, baina taldean erabakirik ez zen hartzen, kanpoko dokumenturik ez zegoelako. Geroago informazio asko jaso genuen,

joera askotako txosten pila. Nire funtsezko ideia hauxe izan zen: “Langileriak askatzen du Euskal Herria edo honek ez du benetan askatasunik lortuko. Independentzia politikoak ez du herria askatzen”. Borroka armatuak ez zuen lehentasunik niretzat, independentzia lor zitekeen, baina herriaren benetako askatasunik ez. Langileria askatzaile eta aske izan gabe, ez zela hori beteko pentsatu nuen.

“Azken urteetan ETArekin bidea hartu dutenek borroka mota hori aukeratzeko eskubidea ere badute”

Jarrera hartu zenuen, argi eta garbi.

Borroka armatuaz eztabaida gutxi izan genuen Zamoran, baina kanpotik postura hartzea eskatzen zitzaigun. Gehiengoaren iritzia hau izan zen: “Dokumentu pila irakurri

dugu, baina kaleko giroa ez dugu ezagutzen. Eztabaida sustatzeko kanpoan egon behar dugu. Kanpoan izango garenean erabakiko dugu”. Nik ETA VI.ari eman nion atxikimendua. Postura hartu nuen ofizialki.

Zamorako kartzela berezia izan zen.

Elizak erantzukizun handia izan zuen Zamoran gertatuaz. Ez zen Estatuaren kartzela soila, Elizaren Konkordatu ere partaide izan zen.

Carrero Blancoren hilketa ongi ikusi al zenuen?

Poztasuna orokorra izan zen eta ospatu egin genuen. Gauza horiek erlatiboak dira, frankismoaren errepresioan ulertu beharrekoak.

Espainolista deitua izatea nola bizi izan zenuen?

Ohitzen zara. “Nik bide hori hautatuta ere, ni bezain abertzalea ez zela” esan nion orduko norbaiti. Eta egun ere horrela da. Euskal Herriak bere buruaren jabe izan behar zuela, baina beste herriekin elkartuta egin behar zuela bide hori.

Eta gaur egun nola pentsatzen duzu?

Euskal Herriak bere buruaren jabe izan ahal izateko lehenik geure noratasuna landu behar dugula. Herri bezala pausoak eman ahal izateko independentzia behar dugula pentsatzen dut. Garaiak aldatu dira. Madrilgo boterea ikusita, borroka armatuak ez zuela irabaziko pentsatu dut beti. Gatazka luzatu bai, herrian eragin ere bai, baina irabazi ez. Estatu gaunditzeko aukera hori ez dut behin ikusi, baina borroka armatuak herrian eragin handia izan duela onartzen dut. Geroak esango du zer nolako eragina izan duten azken hiru hamarkadetako borrokek. “ETA izan ez balitz hobe ginatke”, diote batzuek. Beste batzuek “baina ez genduke orain dugun burujabetza maila edo herriak burujabetzaren alde daukan jarrera” diote. Dilema hori ez dago neurtzerik une honetan. Hori esanda, hauxe ere pentsatzen dut: azken urteetan ETArekin bidea hartu dutenek borroka mota hori aukeratzeko eskubidea ere badute. ■



Euskararekiko motibazioa lantzeko topaketak EMUNen eskutik

EMUNEK *Moti+Batu, nagiak astinduz-mingaina askatu* izena jarri die irailaren 10ean eta 12an Donostiako San Telmo museoa inguruko diren topaketei. Lehen egunean, euskararekiko jarrera ona izan baina egiteko ohiturarik ez dutenengan nola eragin aztertuko dute. Tailerretan gai zehatzagoak landuko dituzte, hala nola: euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenei pausoa ematen laguntzeko, euren inguru hurbileko pertsonen portaerak gakoa dira; esatetik edo pentsatzetik egitera dagoen bidea aztertu nahi da. Euskaraz maite dut, euskaraz egingo dut

bihartik aurrera... baina biharko eguna iritsi eta...

Bigarren egunean, euskara ikasten ari direnei euskara erabili dezaten nola lagundu landuko dute. Era honetako hausnarketak landuko dituzte, tailerretan hauek ere: dirudenez, euskara ikasten ari denak edo hiztun berria denak hiztun gisa legitimitatea sentitzen badu, euskaraz hitz egiteko pausoa errazago emango du. Zer egin dezakegu horrela sentitu daitezen?; euskara ulertzeko arazorik ez dagoenean, bi hizkuntzak erabili ditzakegu elkarrikitza berean.



ARGIA

Nola lortu euskara ikasten ari direnek hizkuntza erabiltzea? Horrelako galderak erantzuten saiatuko dira Donostiako topaketetan. Argazkian, Erreterriako hainbat euskara ikasle.

Hizkuntza aniztasunaren praktika onak Europatik Bilbora

IRAILEAN, Bilboko Alondegian, 50 aditu bilduko dira, kulturartekotasunean, aniztasunean eta integrazioan lan egiten duten eragile europarrak. Hirietan dagoen hizkuntza aniztasunak ekonomian, gizartean eta kulturaren nolako abantailak eragiten dituen aztertuko dute. Europar egin diren

eta egiten ari diren praktika onak kontatuko dituzte mintegian. Besteak beste, Dublin, Londres,artzelona, Berlin, Oslo eta Lisboako adibideak ezagutu ahal izango dira.

Bilboko Udalak eta Europako Kontseiluak antolatu dute mintegia, irailaren 17tik 19ra. Europako Kon-

tseiluak Cities Kulturarteko Sarea dauka eta hor biltzen dira hizkuntza aniztasunaren onurak oinarri hartuta egitasmoak lantzen dituzten hainbat hiri. Europako Kontseiluak Bilbo aukeratu du mintegia egiteko, sarean duen rol aktiboagatik eta hizkuntza arloan duen egoeragatik.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Euskal Herria eraiki

BADAGO AHO BETEAN ESATEN DUENIK “Herria” eraiki behar dugula Euskal Herrian, baina ezezagun zaizkio zein urrats eman diren horretarako. Badago erakunde bat, Udalbiltza, herria eraikitze norabide horretan efikaziaz ari dena. Hala, Pirinioetako eskualdeak aktibatu eta garatzeko hainbat erreminta eta egitasmo jarri ditu martxan, *Euskal Pirinioetan lan eta bizilelopean*. Pirinioetako euskal eskualdeak, hegoaldeko zein iparraldekoak, baztertuta daude, lurralde arrazoiengatik eta egitura sozial desberdina dutelako.

Errealitate horretaz jakitun, Udalbiltzak 19 enpresa eta gizarte proiektu babestu ditu bere Garapen eta Kohesio Funtsarekin, Pirinioetako lurralde desoreka gainditzeko helburuz. Proiektu anitzak dira: barraskiloen etxaldeak, ardo ekologikoaren produkzioa edota euskarazko hedabide digitalen sorrera. 6.000 euro eman dizkio proiektu bakoitzari, eragile sozialekin elkarlana sustatu du, baita tokiko erakundeekin eta

herritarrekin ere. Azken batean, askotan emigratzera derrigortuak izan diren eskualde horietako herritarrak euren herrian lan egin eta bizitzeko aukera izan dezaten da helburua.

Testuinguru horretan, Udalbiltzaren zereginak onarpena merezi du, eta sentsibiltate politiko ezberdinez gairi, parte-hartze handiagorik indartu behar da, Euskal Herriko herritarren mesederako litzateke-eta. 19 proiektu horiek eta beste batzuk aurrera ateratzeko finantzazioa behar dute. Alderdi politikoek, gobernuek, foru administrazioek eta udalek, baita finantza erakundeek ere, argi eta garbi babestu behar litzukete halako egitasmoak, herritar orok bere herrian lana aurkitu dezan, emigratzera derrigortua izan gabe. Hori da Euskal Herria eraikitzea.

Juan Mari Arregi



Mexiko-Tenochtitlan: Zero Zabor hiriburua espainolak heldu arte

Munduko megapoli handi eta kutsatuenetakoa den Mexiko hiriak bere zenbait arazo larriren giltza historian aurkituko luke. Etorkizunerako soluzioak, iraganean. Espainiarrek –euskaldunak barne– menderatu zutenean Azteken inperioa, hondakinak eta oro har iraunkortasuna Europako beste inon baino hobeto kudeatzen zituen gizartea suntsitu zuten.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

‘ZERO ZABOR’ KONTZEPTUA 2010. urtean erabili zen estreinakoz euskaraz, kazeta honetan bertan. *Zero Waste* 1970eko hamarkadan sortu omen zuen Paul Palmer kimikariak. Duela bost mende horrelako izenik ezagutzen ez zuten arren gaur Mexiko den herrialdean nagusi ziren Azteka jendeek, disziplina izugarritz zaintzen zuten Zero Zabor ideia... horretan askoz atzeratuagoak ginen europarrok menperatu eta haien egitura ekonomiko eta sozialak txirtxilatuta genizkien arte.

Hondakinetan aditua den Martin Medina irakasleak azaldu berriak ditu horren zertzeladak, Nazio Batuen Erakundeak iraunkortasun gaiak lantzeko daukan *Our World gunean*: “*The Aztecs of Mexico: A Zero Waste society*”. Udan gorputzez bezala irudimenez urrutira txango egitea maite duen irakurleari atsegingarri gertatuko zaio zibilizazio haren berri ezagutzea. Etorkizuneko poz batzuk iraganera bidaiatuz ikasitakotik sortu ditzakegulakoan.

Medinak plazaratuta dauka “*The World's Scavengers: Salvaging for Sustainable Consumption and Production*” (Munduko txatarrerak: gaiak berreskuratu kontsumoa eta produktzioa iraunkor izan daitezen). Bertan aipatzen du gaur oraindik Mexikon hondakinak berreskuratzeari gaztelaniaz *pepenar* esaten dio-

tela eta kaleko birziklatzaileei *pepenadores*: aztekek mintzo zuten nahuatl hizkuntzan pepenalia ei ziren antzinako birziklatzaileok. Azteken zibilizazioa zerbaitetan izaitekotan trebea, gogortasun militarraz gain, zaborretarako deus ez uzten baitzen.

Azteka jendea oso berandu arte gaur Mexiko denaren iparraldean eta AEB diren hego-mendebaldean bizi ziren, basamortuetan nomada gisa, ehizari eta fruitu bilketari emanak. Gero hegorantz migratu ahala klima gozoagoa eta ur iturri oparoak aurkitu zituzten Mexikoko erdialdean. XIV. mendean bost aintzira zeuden lurralde horietan elkarri lotuak.

Aztekek gaur hiriburua den lekuan Tenochtitlan fundatu zuten 1325ean, izen bereko aintziran, europarrak iritsi baino bi mende lehenago. Haiek heldu aurretik ere han bizi ziren beste herriz inguraturik, aztekek hiri-estatua antolatu behar izan zuten baliatuz beren gertari fama. Mende luzez mertzenario bezala borrokatuak ziren, besterentzako. Kokaleku berrian jende kopurua handitzen hasitakoan, diziplina militar berarekin antolatu behar izan zuten hiriburuaren handitzea aintziraren erdian.

Chinampa izeneko baratze-uhartetxo berriak eraikitzen hasi ziren,

Tomás Filsinger grafista mexikarrak *Mapas y vistas del Anahuac. Espacio y tiempo en la cuenca y la ciudad de Mexico, 1325-2000* obran erakusten du ondoko irudia: Hernan Cortes eta bere gizonek nolako lurraldea aurkitu zuten 1520an Tenochtitlanera iritsi zirenean. Mapa zaharretan oinarrituta dago. 12 kilometro karratuko hedadura zeukan, aintziraren erdian kokatua. Inperioaren bihotza zen erdigune hiritartu eta monumental, piramidez eta bestelako eraikinez betea, emankortasun handiko *chinampa* edo uharte txikiz inguratuta zegoen. Kanal txiki sareak bermatzen zuen pasabide azkarra, behar militarretarako bezala hiriaren horniketa eta hondakinen berrerabiltzea errazteko. Espainiarren konkista ondoren lakua hein handienean idorrazarri arren, oraindik geratzen dira *chinampak* Mexikoko auzo batzuetan. Fama-etuak dira Xochimilco aintzirakoak, espekulazioari aurre eginez gaurdaino iraun dutenak.

inguruko jendeek neolitikotik garatutako sistema ikasita. Zabalean 4-9 metro eta luzean 91 edukitzen zituzten. Aintzirako uretan lehenik oholez osatzen zuten hesia. Ondoren horietan ihiak landatu eta barruko eremua pixkanaka lokatzaz betezen zuten, inguruan urpetik aterata txalupaz garraiatutako lohiz. Ur-azalean lehorra azaldutakoan, perimetroan zuhaitzak landatzen zituzten chinampa egonkortzeko.

Espainiarrak iritsi zirenean –1521an menderatu zuen Hernan Cortesek– Tenochtitlan hiriburu gotorreko biztanle gehienak *chinampa* horietan bizi ziren. Monumentuak, agintea eta zerbitzuak zeuzkan erdiguneko hiritarrek behar zituzten elikagai gehienak kanalez kanal txalupaz oso eskueran zeuden uhar-tetxo horietan ekoizten zituzten. Eta gaur Mexiko den Tenochtitlan hura bere 200.000 biztanleekin zen Ameriketako handienaz gain munduko hiri handienetakoa, Europako beste edozein baino handiagoa.

Gurpilean

Azteken *chinampas* oparotasunaren gakoak, klima gozoa eta ura eskueran edukitzeaz gain, birziklatzean zetzan: baratzetan erabiltzen zituzten jendeen eta azienden hondakin guztiak.



“Areago –dio Medinak– *chinampetan* usatutako ongarririk onena gizakien simaurra zen. Hiriak komun publiko sarea zeukan jendeen eginkariak biltzeko eta arteka hiriko azoka nagusian ere saltzen zen. Pixa berriz oso preziatua zen adreiluen finkatzailetzat. Etxe bakoitzak zeuzkan zeramikazko ontziak pixa bildu eta saltzeko”.

Bide batez esanda, zibilizazio askok erabili izan dute giza simaurra nekazaritzan. Txinako adibidea izan da famatuena, baina izan dira beste asko. Aldiz, sarritan idatzi da Asia eta Afrikako gizarteek giza simaurraren harreman normalagoa duten bitartean Hegoamerika-ko jendeak koprofoboak direla. Mexikoko azteken historiak alde-

rantzizkoa adierazten digu. Agian europarrok, zehazki Mediterraneo-ko jendeok, pasatu ote genien hainbat eritasunekin batera beren kaka-rekiko fobia traumatikoa?

Kontua da, Medinak aztertu duenez, Hernan Cortesek azpiratu aurreko Tenochtitlanen ez zela kasik ezer alferrik galtzen. Oihalak eta sua egin moduko materialak gauez erretzen ziren hiriko gune publikoak argitzeko.

Mende gutxitan nomada izatetik inperioa izatera iristeko baliatu zuten gogortasun militar berarekin antolatu zuten aztekek bizimodua Tenochtitlanen. Azken erregea suertatuko zen Moctezuma II.aren garaian (1502-1520) hondakinak gune publikoetan uztea edo lurpe-

ratzea zigortu egiten zen.

Gizakiak, batik bat etsai preso hartuak, sakrifikatzen zituen gizarte hark heriotza zigorra ezartzen zion zuhaitz bat baimenik gabe eraisten zuenari. Zigorretik ez zen libratzen ez pobrerik eta ez noblerik: aberatsen ume xahuketan harrapatuak heriotzara kondenatzen zituzten. Hierarkiak goitik eman behar zuen etsenplu.

Tenochtitlango antolaketan baziren funtzionarioak garbitasunaz okupatzen zirenak. Medinak dioenez, “hondakin biltzaileok 700 urte daramatzate birziklatze lanean, lehenik Tenochtitlanen, Mexikon gaur egun”.

Aztekek antolatu zuten gizarte eredu berria *agrarian urbanism* delako ereduaren sailkatu izan da, nekazaritzan oinarritutako hirigintza. Gero espainiarrek aztekek militarki menperatu ostean, haien hondakin kudeaketa ere suntsitu egin zuten, aintzirak gero eta gehiago idortu bertan Mexiko hiriburua eraikitze-ko. Eta bertan hondakinen arazoa handitzen hasi zen, hiri moderno gehienetan den moduan.

Medinak azteken zenbait ikasgai nabarmendu ditu. Batetik, larritasun egoeretara egokitzeko ahalmena badutela gizarteek, ingurumen arazoak ere gainditu ditzaketela. Bigarrenik, orduan bezala gaur hondakinak baliabide direla, dena aprobetxatzen asmatuz gero. Hirugarrenik, gizarte batek antolatutako egokitzapenak arrakasta daukala saritzen badi- tu ondo dagitenak eta zigortzen oker jokatzeko tematzen direnak. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Israelgo armadaren sakrifizioa

BARACK OBAMA, EKAINAK 13:

“Azken hamarkadan zehar, armada amerikarrak sakrifizio handiak egin ditu irakiarrek beren etorkizuna eraikitze aukera izan dezaten”. Egiazko historia aldatzeko esaldia da eta sarri eta luzaroan esanda eragingarria ere bai. AEBek ez dute Irak suntsitu, lehenengoz iragan mendeko 90eko hamarkadaren hasierako gerrarekin eta gero 2003ko inbasioarekin. Ez, AEBek irakiarrei beren etorkizuna eraikitze aukera eman diete eta gainera sakrifizio handiak egin dituzte horretarako.

Logika berbera zabaltzen du mundura Israelek: 1947an Nazio Batuen Erakundeak Israelgo estatua onartu zuenetik, arabiarrek itsasoratu nahi gaituzte eta guk gure burua defenditu besterik ez dugu egiten. Diskurtso horrek berak balio izan dio bere Estatua gerraren logikaren gainean eraikitze, bere populazio arabiarra *apartheidean* biziarazteko eta palestinarren ukazioa eta zapalkuntza eguneroko ogia bilakatzeko. Jakina, egia da Israelek Ekialde Hurbilean indarrez eta gerraz eraiki zuen estatua desagerrarazi nahi izan zutela inguruko estatu arabiarrek; baina egia da, halaber, Israelek aspaldi duela irabazia bere estatu posizioa, bai NBEk hala onartzen duelako 1947tik eta baita bere indar militarragatik ere.

Gatazkaren logika hankaz gora jartzea da Israelen defentsa eskubidea, batez ere berau era guztiz desproporzionatua eta hiltzailean erabiltzen duenean. XXI. mendearen lehen urteetan, erresistentzia palestinarra urtean dozenaka hildako batzuk eragiteko gai zen Israelen egindako aten-

tatu suiziden bidez; ondoren, Israelera jaurretiko suziriak medio, haren bizitza apur bat baldintzatzea lortu du, baina hildako gutxi eraginez (2005 eta 2007 arteko erasoetan 11 hildako, adibidez, eta denbora horretan Israelek 1.290 palestinar hil zituen, tartean 222 haur). Israelek badu suziri horien aurkako babes sistema eta horri esker palestinaren erasoak neutralizatzen ditu biktimei dagokionez.

Israelek, bakarrik XXI. mende honetan, milaka palestinar hil ditu. 2000ko irailetik 2006ko uztailera 4.142 hil zituen, horietatik 825 adin txikikoak. 2008-2009ko Gazako erasoan 1.424 palestinar eta uztailaren hasieran Gazaren aurka hasitako oraingo operazioan

Nazioarteko egungo ordenaren axolagabekeriak, halaber, Israelen aurkako boikota akuilatzen du

dagoeneko 700dik gora hildako eragin ditu. Hildako gehienak zibilak dira, batez ere itsasoz, lurrez eta airez egindako bonbardaketen ondorio. Zaurituak milaka dira, beste milaka etxe erauntsiak eta lurraldeko azpiegitura gehiena txikitua geratzen da. Egoera borobiltzeko, Gazari dagokionez, 2006tik aurrera Israelek lurraldearen aurkako blokeo zorrotza darama, bertako lurraldea milioi eta erdi pertsona bizi diren kartzela erraldoia bihurtuz.

1967TIK GAURDAINO Israelek etengabe egin dio uko NBEk orduan emandako aginduari: utzi Sei Egunetako Gerraren ondorioz okupatutako lurraldeak. Horrela, Israelek gaur egun, 1947an NBEk

berari aitortutako lurraldea baino %50 gehiago du eta palestinarek haien zat aurreikusitako lurraldearen %60 gutxiago. Bere sorreratik milioika palestinar kanporatu ditu bizi ziren lurraldeetatik eta ez die itzultzeko eskubiderik ematen. NBEk Palestinako lurralde gisa onartu zuen Jerusalem bere hiriburutzat du estatu juduak. Eta milioi erdi israeldar judu barreiatu ditu Zisjordanian han finkatutako kolonien bidez. Nola konpontzen da hori guztia?

Nazioarteko legediaren bidez, litzateke erantzun logikoa, baina AEBek preso duten NBEk ez du ez indarrik ez borondaterik halakorik egiteko. Nazioarteko komunitatean, alabaina, Israelen jarrera gero eta arbuatuagoa da estatuen zein herritarren aldetik, eta horren ondorioak gero eta agerikoagoak dira Israelentzat, bere aurkako nazioarteko boikotak erakusten duen moduan.


Bi esparru nagusi daude Israelen jarrera zigortzeko, nazioarteko legedia edo bere aurkako boikota. Zorritzarez, gaur egun bigarrena baino ez da eraginkorra. Denboraren perspektibak erakusten du Hegoafrikaren kasuan *apartheidaren* aurkako nazioarteko boikota erabakigarria izan zela. Nazioarteko egungo ordenaren axolagabekeriak, halaber, Israelen aurkako boikota akuilatzen du.

Obamarena eginez, Benjamin Netanyahu esango luke armada israelarra Hamasen aurka egiten ari den sakrifizioekin, etorkizuna eraikitze aukera ematen diela palestinarek. Noiz arte eutsiko dio gezur puxikari muturren aurrean lehertu baino lehen? ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Argiako harpidedunentzat




Atxaspi Hotela

Relax gaua
(asteaz zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2423-2424. Argia)

ATXASPI Hotela

- Julen Goia Erauzetamurgil (Donostia)

EUREKA Zientzia Museoa

- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruña)
- Ibon Garmendia Larrañaga (Urrestilla)

INGURU ABENTURA Aguateko Arroilara

- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)
- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)
- Amaia Agirretxe Gorrotxategi (Azpeitia)
- Sabina Arruabarrena Sukia (Donostia)

ZAIN Egunsenti berri baten bila CDa

- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)
- Aitor Servier Etxexuri (Azkaine)
- Manu Goigogana Bengoetxea (Eibar)
- Jose Mari Ilardua Garitano (Bergara)

OKATXU kamiseta

- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astekari honetan iragarri ditugun zozketetan parte hartzeko aukera, abuztuaren 28 arte luzatuko dugu, udako oporraldia dela eta. Eskakerak internet bidez bakarrik egin ahalko dituzue: gunea@argia.com posta elektronikora mezu bat bidaliz edo www.argia.com/gunea kanalaren bitartez.



Zatoz, parte har ezazu

Basherri taldeen mugimenduan!

Basherri taldeek, modu ekologikoan ekoiztutako produktuak inguruko baserriarrendandik zuzenean eskuratzeko aukera ematen dute, konfiantzazko harremana oinarritzat hartuta elkarlana adosten dugu.

ELKARLANAREN ONURAK

- Lurrari eta herriari lotutako nekazaritza bultzatzen du; baserri txiki eta dibertsifikatuak, ekologikoak, autogestionatuak, genero berezitasunak errespetatzen dituztenak, lan baldintza duinak eskaintzen dituztenak, bertako merkatura zuzenduak...
- Lekuko ekonomia sustatzen du prezio duinetan.
- Elikadura burujabetzaren alde egiten du, elikadura ereduaren inguruan erabakitzeke ahalmena berreskuratuz.
- Lurraren emankortasuna zaintzen du.
- Nekazal errealitatea gertutik ezagutzeko aukera ematen dio herritarrari.
- Zabor gutxiago sortzen du, baita garraioak eragindako kutsadura murriztu ere, bertatikbertarako ekimena izanik.

basherriak@gmail.com
☎ 615 767 086

OPREZIOKO KONTAKU TIADE ETA KOOPERATIBAK
Basherri
sarea